

EGUZKILORE

Número Extraordinario 10.

San Sebastián

Octubre 1997

163 - 209

ESPAINIAKO KODE PENAL BERRIA: ARDATZ NAGUSIAK ETA OINARRIZKO EDUKIAK

José Luis de la CUESTA ARZAMENDI

*Zuzenbide penalaren Katedraduna
Euskal Herriko Unibertsitatea*

Laburpena: 1978ko Konstituzioak argi erakutsi zuen Kode Penal berri baten premia, egoera politiko, sozial eta juridiko berrira egokituko zena, ordura arte zegoenaren sustraiak aurreko mendeko lehen erdi-koak baitziren, nahiz eta zenbait aldaketa eginak zituen. Perfektoa izan ez arren, kode berria, 1995ean onartua, gizarte modernoak arlo kriminalean eta penalean dituen beharrezanein oinarrian erantzuteko nahikoa dela esan dezakegu.

Resumen: La Constitución de 1978 evidenció la urgencia de un nuevo Código Penal que se adecuara a la nueva situación política, social y jurídica, máxime si tenemos en cuenta que el antiguo, aún con modificaciones, hundía sus raíces en la primera mitad del siglo pasado. Sin ser perfecto, puede decirse que el nuevo código, aprobado en 1995, responde, en lo esencial, a las necesidades de una sociedad moderna en el ámbito criminal y penal.

Summary: The 1978 Constitution has posed the urgency for a new Penal Code which adapts to the new political, social and judicial situation, all the more so if we take into account that the former Constitution, even with modifications, embedded its roots within the first half of the past century. Without being perfect, it could be said that the new Code, passed in 1995, responds, in the essential matters, to the requirements of a modern society in the criminal and penal sphere.

Résumé: La Constitution de 1978 a mis en évidence l'urgence d'un nouveau Code Pénal qui s'adapte à la nouvelle situation politique, sociale et juridique, à plus forte raison si nous tenons compte du fait que l'ancien Code, toujours exposé à des modifications, était enraciné dans la première moitié du siècle dernier. Sans être parfait, on peut dire que le nouveau code, adopté en 1995, répond essentiellement aux nécessités d'une société moderne en matière criminelle et pénale.

Auszug: Die Gesetzgebung von 1978 machte deutlich daß man sehr schnell ein neues Strafgesetzbuch braucht, was sich besser an die heutige politische, soziale und juristische Situation an paßt, vor allem wenn wir berücksichtigen daß die alte Gesetzgebung selbst mit Änderungen noch aus die erste Hälfte des vorigen Jahrhunderts stammt. Ohne vollkommen zu sein, können wir sagen daß das neue Strafgesetzbuch wesentlich an die Bedürfnisse einer modernen Gesellschaft beantwortet auf straf- und verbrecherisch Gebiet.

I. SARRERA

1978an Espainian Konstituzio berria onartu zen eta askatasunean oinarritutako sistema politikoa eta estatuko egituraren aldaketa eragin zituen arren, ez zuen eragin, ordea, zigorrei buruzko testurik garrantzitsuenaren berehalako aldaketa, antzina gertatu ohi zen bezala. Kode Penal aldatzeko lehenengo proiektua UCDe aurkeztu zuen 1980an Gorteetan¹; 1983an gobernu sozialista berriak orduan indarrean zegoen Kodearen aldaketa sakona egitea erabaki zuen, eta, Kode Penal Berriaren Aurreproiektuaren Proposamena egitea agindu zuen arren, 1992ra arte ez zuen aurkeztu proiektua (Parlamentuan ordurako behin baino gehiagotan aldatu zuten Kode zaharra). Baina 1994an, hauteskundeak egin ondoren, beste proiektu bat aurkeztu zuten Parlamentuan; ez zuen inork uste proiektua onartu egingo zenik, gobernua nahiko ahula zen-eta, baina hala ere 1995eko azaroaren 8an onartu egin zuten². Testu berria bederatzigarren Kodea zen 1822an zigorrak kodifikatzen hasi eta lehenengo Kodea egin zenetik³ Estatuko Aldaizkari Ofizialean argitaratu eta seigarren hilabetean jarri zen indarrean eta behin betiko ordeztu zuen Kode Penal zaharra, oinarri-oinarrian 1848ko Kodea zena.

Ezin uka dezakegu Kode berria onartzea garrantzia handikoa izan dela. Bai zuzenbidearen arloan, bai politikaren eta gizartearen arloan, Kode berria garrantzi handikoa da, Konstituzioaren “ezezkoa” da eta⁴. Izan ere, Konstituzioan herritarren eskubideak eta askatasuna defendatu dira, era positiboan baieztatu dira, eta Kode Penalean, ordea, askatasun horren mugak zehaztu dira, legezkoa denaren mugak zehaztuz. Kodeak duen garrantzi hori da, hain zuzen ere, Kodea oso gutxitan aldatzearen arrazoia. Baina, hala ere, Espainian begi bistakoa zen Kode berria egitearen beharrezan, eta horren arrazoi bakarra ez zen indarrean zegoen Kodearen oinarriak joandako mendearen lehenengo erdikoak izatea, bazegoen aldaketarako arrazoi gehiago ere; premia larria zegoen edukiak egokitzeko, bai

1. Egia esan, Kode Penal berriaren aurreproiektuarekin lanean hasteko ideia Konstituzioa onartu aurretik sortu zen. ALVAREZ GARCIAk eta LUZON PEÑAK gogorarazi digutenez Justiziako ministroa, Landelino Lavilla, izan zen 1978ko apirillean Kode berria idazten hasteko agindua eman zuena. F. ALVAREZ GARCIA, “Prólogo a la primera edición”; F. J. ALVAREZ GARCIA eta BESTE BATZUK, *El Código Penal de 1995. Edición anotada y concordada*, Valentzia, 1995, 15. or.. D. M. LUZON PEÑA, *Curso de Derecho Penal. Parte General*, Madril, 1996, 124. or..

2. L. GARCIA FERNANDEZek egindako “Crónica parlamentaria”rako ikus TAPIAREN monografiko berezia, *Código Penal*, Madril, 1996. Ikus ere D. LOPEZ GARRIDO, M. GARCIA ARANen aipamenak, *El Código Penal de 1995 y la voluntad del legislador. Comentario el texto y al debate parlamentario*, Madril, 1996.

3. F.J. ALVAREZ GARCIA, “Algunas consideraciones críticas en torno al Código Penal de 1995” *Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya*, 2. garaia, 1. zbkia., urtarrila/martxoia 1996, 99. or..

4. Nire ustez esamolde hori “Konstituzio negatiboa” esatea baino egokiagoa da. Hori horrela erabili izan da 1995eko Kode Penal berriaren arrazoiak aurkeztu ziren arte.

Konstituzioaren balore eta printzipioei⁵, bai herrialde moderno bateko egoerei dagokienez, eta hori ezin zitekeen lortu testu zaharretan aldaketak eginez edo partxeak jarritz.

Ikuspuntu horretatik eta argi egon arren Kode berria ez dela “perfektua”⁶ eta egiteko erabili duten prozesuak merezi dituen kritikak⁷ baztertu gabe, Kode Penal berria “nahiko ondo egokitu zaio Konstituzioari”⁸, balore demokratikoak errespetatu eta defendatu egiten ditu⁹, eta, orokorrean, akats batzuk badituen arren¹⁰, erantzun hobea eman dio egungo politika kriminal eta penalarari.

Baina, lehenago ere esan dudan legez, ez dira gutxi Kode Penal berriko akatsak. Gizakiek egiten dituzten lan guztietan beti izaten dira zenbait akats, baina, hala ere, eta kontuan izan gabe akats teknikoak, Kode berrian badira beste zenbait akats, hala nola, zati orokorreko xedapenen eta delituen edukietan agertzen direnak. Horren adibide argiak dira ez-egiteko delituaren arautzea (11. artikulua), kondenak oso-osorik egiteari buruzko araua eta zenbait gaitan aldatu ez dituzten irizpide kriminalak, esaterako, eutanasia eta drogen arloan (norabiderik gabeko errepresioa mantendu eta areagotu egin da) eta, batez ere, Ordezko Zerbitzu Sozialaren intsumisioaren kasua.

Aurrekoaren ildo beretik, badira ere beste zenbait gabezia Kode berrian; ez dute kontuan izan epailearen alboan kriminologoa jartzea. Hala ere, zeinbat erabaki hartu aurretik epaileak “txostenak” izan behar ditu eta horien artean garrantzia berezidunak izan behar dira txosten kriminologikoak, hala izan beharko litzateke behintzat. Bestalde, ez ditu behar aina aprobetxatzen biktimologiaren eza-gupenak. Kontuan izan du biktimari kalteordaina ematea erantzukizun kriminalaren aringarri bezala (21. artikulua) eta, gainera, jarrera hori derrigortzat jotzen du zigorra kentzeko edo aldatzeko¹¹. Baina, hala eta guztiz ere, biktima, oraindik ere, gertaera bateko subjektu pasiboa da; gertaera hori jazarri egin behar da beste maila batean eta sortutako kalteak eta arauhausteari atxikitutako kalteak konpondu egin behar dira. Kaltea konpontzea eta kalte-ordainak erantzule kriminalei edo erantzule

5. J. M. VALLE MUÑIZ, “Prólogo”, *Código Penal y Leyes penales especiales*, Iruñea, 1996, 13. or..

6. F. ALVAREZ GARCIA, “Prólogo...”, 16. or.; T. S. VIVES ANTON, “Prólogo”, *Comentarios al Código Penal de 1995*, I. liburukia, Valentzia, 1996, 7. or..

7. F. J. ALVAREZ GARCIA, “Algunas consideraciones críticas...”, *aip.*, 102. or. eta ondorengoak.

8. G. QUINCERO OLIVARES (F. MORALES eta M. PRATS CANUTen laguntzarekin), *Curso de Derecho Penal. Parte General*, Bartzelona, 1996, 225. or.. Antzera, T.S. VIVES ANTON, *aip.*, 7. or..

9. J. M. MUÑIZ, “Prólogo”, *aip.*, 12. or..

10. Antzeko eran, E. GIMBERNAT ORDEIG, “Prólogo”, *Código Penal. Texto íntegro de la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre que aprueba el nuevo Código Penal*, madril, 1995, XVII. or.; J. M. MUÑIZ, “Prólogo”, *aip.*, 13. or..

11. Biktimologiak zigorra kentzeko edo aldatzeko duen garrantziari buruzkoa, E. LARRAURI, “Suspensión y sustitución de la pena en el nuevo Código Penal”, *Jueces para la Democracia*, 25, 1996, 55. or..

zibil ordezkatzailerik dagokie, baina, gauza bitxia, horien artean ez dago estatua, nahiz eta delitua bortizkeriazko delitua izan¹², bai ordea 1848ko Kode zaharrean¹³. Aipatutako ikuspuntuarekin bat etorriz, ez zaio irtenbide berririk eman zigorrari (ez eta zigorraren eskuhartzeari); ez da izan kontuan delitua dela-eta sortu den arazoa konpontzeko era izan daitekeela delitugilearen eta biktimaren artean bakeak egitea¹⁴.

Edonola ere, eta esanak esan, Kode berriaren izaera modernoa da, teknika-ren ikuspuntutik aurrekoa baino hobea da eta egungo babes penalaren beharriari hobeto egokituta dago. Horren adibide dira Zuzenbide Penalaren oinarriko printzipioetan eta bermeen zehaztutakoa eta Zati Orokor eta Bereziaren zenbait pasarte.

II. KODE PENAL BERRIKO PRINTZPIO OROKORRAK

1. Legezketasunaren printzipioa

Kode Penal berriaren helburu esplizituak eskuhartze penalaren printzipioak eta Konstituzioa egokitzea dira; Aurretiko titulutik hasita (zigor-arauen ezartze-ari eta bermeei buruzkoa) ikusi ahal izan dugu helburu hori lortzeko egin den ahalegina, batez ere legezketasunaren printzipioari dagokionez.

Printzio hori bai delituei bai zigorrei aplikatu dakieke, krimenaren, zigorraren, eskumenaren eta betetzearen berme bezala, Kode berriko lehenengo hiru artikuluei jarraituz¹⁵. Zigor-lege onuragarrien kasuan atzera-eragina onartzen da, baina horren salbuespena dira behin-behineko legeen ezartzeak, besterik ez bada zehazten behintzat (2,2. artikulua). Ordea, ez da onartzen aldeko parekotasuna aintzina-ko proiektuetan bai onartzen zen, baina interpretazioa eginez bai onar

12. Hala ere, abenduaren 11ko 35/1995 Legean, delitu bortitzen eta askatasun sexualaren kontrako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoan, aurreikusten dira biktimei eman beharreko herri-laguntzak delituen emaitza heriotza, gorputzeko lesio larriak edo osasun fisiko edo buruko osasunaren kontrako kalteak direnean. Era berean, lege horretan delitu sexualen biktimei eman beharreko laguntza psikologikoa eta soziala ere aurreikusten dira, berdin da erasoan indarkeria erabili den edo ez. Terrorismoaren biktimentzat ere badude herrilaguntzak.

13. 1848ko Kode Penaleko 123. atalean zehaztuta zegoen zein kasutan eta zenbateko laguntza eman behar zion estatuak delitu edo hutsegite baten ondorioz kaltetuta suertatzen zenari, egileek edo gainontzeko erantzuleek kalteordaina ordaintzeko erarik ez zutenean. G. LANDROVE DIAZ, *Victimología*, Valentzia, 1990, 109. or..

14. konpontzea delaeta 112. atala ulertzeko erei buruz, R. BONA, "El cumplimiento de las penas a partir del nuevo Código Penal", *Jueces para la Democracia*, 25, 1996. Ikus ere F. GONZALEZ VIDO-SA eta P. STANGELAND, "La oficina de ayuda a la víctima: sugerencias concretas", *Boletín criminológico*, 20, 1996.

15. G. LANDROVE DIAZ, *Introducción al Derecho penal Español*, 4. arg. berrikusia eta eguneratua M. D. Fernández Rodríguezekin, madril, 1996; L. MORILLAS CUEVA, *Curso de Derecho Penal Español. Parte General, Madril*, 1996; M. POLAINO NAVARRETE, *Derecho Penal. Parte General*, I. liburuzka, Bartzelona, 1996.

daitekeenez, aurrerantzean istilua egongo dira Kode berriko 4-1. eta 3. artikuluan zehatzmehatz zehaztutakoarekin¹⁶.

2. Egozte subjektiboaren printzipioa

Printzipio horren arabera debekatuta dago emaitzagatik erantzule egitea norbait (1983an egin zen erreformatik aurrera izan da kontuan hori) eta beharrezkoa da dolo edo arduragabekeria izatea erantzukizun kriminala antzemateko (5. eta 10. artikulua). Ikuspuntu hori egozte subjektiboaren printzipioaren oinarria da edo, doktrinako gehinentzat, *erruduntasunaren printzipioarena*.

Segurtasun neurriei dagokienez, horiek zehazteko derrigorrezkoa da oinarritze delitutzat jotzen den gertaerak sortutako arrisku kriminalean (6. artikulua).

3. Beharrianaren printzipioa

Beharrianaren printzipioari dagokionez, horren betetzea hobeto ikusten da Zati Berezian agertzen diren delituertarako eskuhartze penalean eta delitu horietarako zehazten diren zigorretan. Hala ere, Kode berrian zehaztutakoak ez dakar beti eskuhartze penalaren arintzea.

Hala ere, Zati Orokorreko ikuspuntutik, zenbait elementu legegileak dituen aukeren adierazle dira. Horren adibidea da ondorengo kasuetan sistema orokorra ezarri beharrean sistema zehatza ezartzea. Kasu horiek honako hauek dira: arduragabekeriaren (12. artikulua)¹⁷ eta prestatze-ekintzaren leporatzea (17,3. eta 18,2. artikulua), zigorren (eta horien ordezkoen)¹⁸ sistema berria edo segurtasun-neurriak erabiliz eskuhartzeak murriztea ezin izango dira izan ekintza berari ezarri dakioken zigor abstraktua baino larriagoak edo iraupen luzeagokoak, ez eta egilearen arriskugarritasuna zuzentzeko beharrezko litzatekeena baino handiagoak (6,2. artikulua). Horrek guztiak argi adierazten du Espainiako legigileek joera dutela Zuzenbide Penala azken aukera bezala erabiltzeko (esan dugun legez ez da beti horrela adierazten Kodeko Zati Berezian).

16. Hala ere, D. LOPEZ GARRIDO eta M GARCIA ARANen iritziz posible da “onarpen doktrinala”, parekotasunaren debekua bermearen ikuspuntutik ulertzen bada. *El Código Penal de 1995...*, aip., 41. or..

17. L. M. VALLE GOMEZ, “Tratamiento de delitos y faltas por imprudencia en la moderna reforma penal en España”, *La Ley*, 4023 zbkia., 1996.

18. M. I. SANCHEZ GARCIA, “El sistema de penas”, *La Ley*, 4010, 4011 eta 4012 zbkia., 1996ko apirilko 8, 9 eta 10; J. ROBLEDO RAMIREZ, *Concepto y principios para la aplicación de los sustitutivos penales. Estudio de su regulación en España y México*, Madril, 1966; I. SERRANO BUTRAGUENO, *Las penas en el nuevo Código Penal. Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre. Doctrina, jurisprudencia, Derecho comparado y casos prácticos*, Granada, 1996.

4. Gizatasun printzipioa

Espainiako Zuzenbide Penal komunean eta militarrean heriotz-zigorra kenduta dagoenez (gera garaian ere ez zegoen horrelakorik)¹⁹ eta betiko kartzela-zigorrik ere ez dagoenez²⁰, Kode berrian printzipio hori beharrianen printzipioa betetzeari bideratuta dago. Adibidez, askatasuna kentzen duten zigorren iraupena laburtzea, beste aukera batzuk edo ordezkotzat batzuk aurreikustea edo segurtasun-neurrien arloan mugak zehaztea. Horiez gain, kontuan izan behar dugu tortura edo osotasun moralaren aurkako delituen aurreikuspena (173-177 artikulua).

Gizatasun printzipioari buruz hitzegiterakoan gai nagusia beti izaten da delitugileak duen tratuta Kode Penalean. Baina Kode Penalak benetan zaindu nahi baditu ekintza deliktiboak jasan dituztenen interesak eta benetan onbera izan nahi badu, ez du ahaztu behar biktima; biktima ere kontuan izan behar da Kodean alde batetik ikusi egin beharko litzateke biktimak berak delituan izan dezakeen zerkusia eta, bestetik, kontuan izan beharko litzateke biktima asetzeko, kaltea konpontzeko edo behar duen laguntza emateko beharrezana. Baina Kode berria egiterakoan ez zaio inolako jaramonik egin biktimologiari, eta aipatutako gaiak ez dira agertzen Kodean. Horrela, bada, testu berria tradizionalistegia da aldaketa batzuk egin diren arren erantzukizunaren aringarrien arloan edo zigorrak kendu edo ordezkotzat jartzeko arloan.

III. ZATI OROKORRA²¹

Zati Orokorreko arauetan I liburua hamar bloketan banatu da (10-173 artikulua): arau-hauste penala, erantzukizun kriminala duten pertsonak, zigorrak, segurtasun-neurriak, erantzukizun zibila, ondorio gainerako ondorioak, erantzukizun kriminalaren desagertzea.

1. Arau-haustearen teoria

Aurreko testua albo batera utziz, Kode berrian *arau-hausteak*²² hiru zatitan banatu dira aurreikusitako zigorren larritasunaren arabera: delitu larriak, delitu ez hain larriak eta hutsegiteak (13-33 artikulua).

19. Azaroaren 27ko 11/1995 LO.

20. Hala ere, 78. atala Espainiako zuzenbidean betiko gartzelazigorra sartzeko era dela esan dute. M. I. SANCHEZ GARCIA, "El sistema de penas (II)" *aip.*, 3. or..

21. I. BERDUGO GOMEZ DE LA TORRE, L. ARROYO ZAPATERO, N. GARCIA RIVAS, J. C. FERRE ELIVE, J. R. SERRANO PIEDECASAS, *Lecciones de Derecho Penal. Parte General*, 4. arg. (M: I. Valdecabres Ortizen arduraean), Valentzia, 1996; C. HERRERO HERRERO, *Introducción al nuevo Código Penal (Parte General y Especial)*, Madril, 1996, 21. or. eta ondorengoak; D. M. LUZON PEÑA, *Curso...*, *aip.*; S. MIR PUIG, *Derecho Penal. Parte General*, 4. arg. Bartzelona, 1996; F. MUÑOZ CONDE, M. GARCIA ARAN, *Derecho Penal. Parte General*, 2. arg., Valentzia, 1996.

22. Delituak edo arauhausteak dira legeak zigortu egiten dituen ekintza edo ezegite mingarriak edo arduragabekoak (10. atala).

Arautzeko klausula orokor bat²³ erabili da, *ez-egitezko komisioarena*, hain zuzen ere (11. artikulua); hau da, subjektuak delitua den ekintza bat egingo dela esaten ez duenean. 11. artikuluko testua ez dago batere ondo idatzita, bertan zehaztutakoa irakurtzerakoan arazo handiak sortzen dira, eta delituak ezegitezkoak izateko bi baldintza bete behar dirala ulertzen da: berdintasunaren irizpide materiala eta bermearen ziurtasuna. Izan ere, Kode berriko 11. artikuluan onartu egiten da emaitzeko delituak ezegitezkoari leporatzea, baldin eta argi badago ez dela ekiditu delitua, hau da, egilearen betebeharrak juridikoa berezia hautsiz delitua burutzea eragin duenean, legerean testuaren arabera. Baina badira bi kasu *ex lege*²⁴ jarduten duela Kodeak: bermearen kasuan (legeen edo kontratuen bidez ezarritakoa) eta injerentzien kasuan benetako onarpena dagoen kasuan izan ezik²⁵. Gauzak horrela, zaila da betebeharrak guztiak bateragarriak izatea, irizpideen oinarriak oso desberdinak dira-eta, eta ondorioz, baldintzetariko bat indarrak gabe gera daiteke, baldintza hori izanik garrantzitsuena. Aipatzen dugun baldintza hori egite aktiboaren eta ezegitezkoaren artean berdintasun materiala egotearen beharra da.

Errakuntzek ere aipamen berezia dute (14. artikulua). Zuzenbide Penalean errakuntza hau da: delitu bat ez jakitea eta delituari buruzko uste okerra izatea (tipo errakuntza) edo jokaera zuzena duen ustea izatea (debekuzko errakuntza). Errakuntza gaindiezinak ez du erantzukizun zibilik, koalifikazio soil bati egokitzen ez bazaio behintzat; kasu horretan, gaindiegaria izan edo ez, ez da zilegi astun-garririk jartzea. Errakuntza gaindiegaria bada eta arau-hauste penala den zerbaiti egokitzen bazaio (tipo errakuntza) zigorra jar daiteke arduragabekeriagatik, egin den deliturako arduragabekeria zigorgarria bada (Kode berriean ez dira arduragabekeria guztiak zigortzen). Errakuntza gaindiegaria arau-hauste den ekintzaren ez legezkotasunari egokitzen bazaio (debekuzko errakuntza)²⁶ zigorra maila batean edo bitan jaisten da. Tipo errakuntza arau-hauste penala jasan duen ekintzari egokitzen zaionez, arazoak sortu dira arau-terminoekin egindako errakuntzak direla-eta, errakuntza horiek ez baitira ez tipo errakuntzak (egitezko errakuntza) ez eta debekuzko errakuntzak ere. Gauzak horrela, egungo doktrinaren eta jurisprudentziaren irizpideen arabera desberdinak dira tipo eta debekuzko errakuntzak eta ez dut uste aldatu egingo dituzten irizpideok; horrela, arauterminoen arloko errakuntzak ohiko ekintzak osatzen dituzten edozein elementuri egokitutako errakuntzen barnean sartuko dira.

23. F. J. ALVAREZ GARCIA, "Algunas consideraciones críticas...", *aip.*, 113. or..

24. Ikus komentarioa, D. LOPEZ GARRIDO eta M. GARCIA ARAN, *El Código Penal de 1995...*, *aip.*, 48. or..

25. 14. ataleko azken partean honako hau dio; ondorio horietarako ekintzaren ezegitea parekotu egingo da: a) parte hartzea legean zehaztutako eginbeharra edo kontratuen bidezko eginbeharra denean; b) ezegitea egin duenak egoera arriskutsua sortu duenean juridikoki babestuta dagoen ondaserako egin duen ekintzaren edo ezegitearen bidez.

26. legigileak erabili duen hizkerari kritika; arauhauste penala den ekintzarengan egindako hutsegitea batetik, eta, bestetik, ekintzaren ezlegezkotasunarengan egindako hutsegitea. E. GIMBERNAT ORDEIG, "Prólogo", *aip.*, XXIII. or..

Kode Penal berrian zehatz agertzen dira *arduragabekeriaren eta zigorgarriak diren prestatzeekintzen* leporatzea (konspirazioa, proposamenak, probokazioa eta apologia)²⁷ eta *burututako delitua eta ahalegina* era orokorrean zigortzen ditu (15. artikulua). Ahaleginaren kasuan, egungo Kodean frustazioa ere ahalegina da, ez da era zuzenean zehazten zein izango den zigorra ahalegin ezegokiaren kasurako, ahalegin ezegokia ezinezkoa dirudien arren, ezin daiteke baztertu ekintza egin egingo delako aukera eta, hortaz, nahiz eta abstraktuan izan, arrisku bat da ondasun juridikoarentzat. 62. artikuluan zehazten denaren arabera ahalegin kasuetan ezarriko den zigorra burututako delituertarako legean aurreikusten den zigorra baino gradu bat edo bi txikiagoa izango da; hala ere, kontuan izan behar da ahaleginaren arriskua eta zenbateraino lortu den ahalegin hori egitea eta ahalegina guztiz ezegokia bada edo delitua ezinezkoa bada, ez da zigorrik ezarriko.

Ahaleginaren kasuan (prestatze-ekintzen kasuan ez da gauza bera gertatzen) kontuan du Kode berriak *delitu-abandonuaren* eragina; horretarako beharrezkoa da delituaren ekintza ekiditzea, bai hasita dagoen ekintzatik urrunduz, bai ekintzaren emaitzak galeraziz. Jarrera hori duenari ezin izango zaio leporatu erantzukizun kriminalik, baina hori horrela izateko beharrezkoa izango da burutu diren ekintzak ez izatea delitu edo falta (16,2. artikulua). Gauza bitxia den arren araua ez da bera partaidetza kriminalaren abandonu kasuetarako (16,3. artikulua); izan ere, kasu horietan nahikoa da ekintza galerazteko ahalegin serio, sendo eta segura egitea.

Erantzukizun kriminalaren salbuespenen arloan *adin txikitasun penala* aipatu da Kode berrian (19. artikulua) eta, adin hori hemezortzi urtetan ezarri da, adin nagusitasun zibil eta politikoarekin parekatuz. Ahala ere, hori, oraindik, ez dago indarrean. Kode berriko azken xedapenetatik zaspigarrenean zehaztu denaren arabera, derigorrezkoa da onartzea adin txikikoaren erantzukizun penala arautzen duen legea²⁸, eta, hori, oraindik, egitear dago. Horrela, bada, eta behin-behineko, puntu horretan Kode zaharra dago indarrean. Kode zahar horren arabera adin-nagusitasun penala hamazazpi urterekin lortzen da (8-2. artikulua) eta hemezortzi urterarte adinaren araberrako aringarritasun garrartzitsuak zehazten ditu

27. 17. atalaren arabera: 1. konspirazioa: bi pertsona edo gehiago elkartu egiten direnean delitu bat egiteko eta delitua egin egin behar dela erabakitzen dutenean. 2. proposamena: delitua egitea erabaki duenak beste bateri edo batzuei delitu hori egiteko gonbitea egiten dienean.

Bestalde, 18,1. atalaren arabera, probokazioa da inprenta, radiodifusio edo iragarriak egiteko antzeko eraginkortasuna duen beste edozein medio erabiliz edo laguntalde baten aurrean delitu bat egitera bultzatzen denean.

Apologia da (18,1 II. atala) jendaurrean edo difusiorako edozein mediotan hilketa edo hiltzileak goraiatzatzen dituztenen ideiak edo doktrinak azaltzea. Apologia delitua izango da probokazio era bat denean edo bere izaeragatik edo egoeraren arabera delitu egitera bultzatzeko era zuzena denean. Apologiari buruz, B. DEL ROSAL BLASCO, "La apologia delictiva en el nuevo Código Penal de 1995", *Cuadernos de Política Criminal*, 58 zbkia., 1996, 69. or. eta ondorengoak.

28. Hemezortzi urtetik berakoek egindako delituertaz arduratzen diren epaileek beren zerbitzura dauden teknikariek txosten bat eskatu behar dute. Txostenean honako hauek zehaztu behar dira: adin txikikoaren egoera psikologikoa, hezkuntza, sendiaren egoera, inguruko gizartearen egoera eta, orokorrean, leporatzen zaion ekintza zergaitik egin duen argitu dezaketen beste edozein egoera (aldi baterako xedapenetatik hamabigarrena). Ikus J. C. CAMPO MORENO, "Estudio de las disposiciones transitorias del Nuevo Código Penal", *Actualidad Penal*, 6/1996-05-12.

(9-3. eta 65. artikulua). Bertan zehaztu zenaren arabera adin tarte horretan posible zen zigorra betearazi ordez delitugilea erreformatiora eramatea jarrerak zuzentzea lortu arte (Kode zaharreko 65. artikulua)²⁹ eta zehaztu egin zen zein kasutan zuten erantzukizun zibila 16 urtetik beherakoak (20,1. eta 22 II. artikulua).

Salbuespenen arloan ere aldaketa garrantzitsuak daude (20. artikulua)³⁰.

Terminologiaren ikuspuntutik aipatzekoa da egin den termino aldaketa. Lehen “zoro” erabiltzen zen kasuetan, orain, ekintzaren ez legezkotasuna ulertzea edo ulerpen horren arabera jardutea eragozten duen “edozein anomalia edo aldaketa psikiko” aipatzen da³¹.

Horretaz gain, era esplizituan aurreikusten dira behinbehineko buruko arazoak, alde batera utzita edari alkoholikoen edo drogen eraginez guztiz intoxikatuta daudenen kasua; beti ere intoxikazioa ezin izango da nahita eragin, gero delitua egiteko. Arau-haustea aurretik pentsatugabea eta aurreikustezina izan behar da. Horien parean jarri dira sustantzia batekiko menpekotasuna dela-eta ustez abstinentzia sindromearen eraginean egindako arauhaustea³².

Bestalde, ez dira *salbuespen bezala* agertzen eutsi ezineko indarra³³ eta zor den esanekotasuna, eta berriztu egin da beldur gaindiezinaren formula; eremua zabaldu egin dute, desagertu egin baita Kode zaharrean derrigorrezkotzat jotzen zuten baldintza, hau da, beldurra sortutako gaitza delituak sortutakoaren parekoa edo handiagoa izatearen baldintza.

Gutxiago dira *aringarriak eta astungarriak*, baina horrek ez du esan nahi ez denik berririk sartu.

Aringarrien kasuan (21. artikulua)³⁴, Kode berrian kendu egin da baztertzearen nahia, 1983ko erreformaren ildo bera jarraitu da, eta, ordea, horien barnean sartu da alkoholarekiko edo drogekiko menpekotasun larria. Berezko damua bitan banatzen da errudunaren jokararen arabera:

29. T. GISBERT JORDA, “La entrada en vigor de la elevación de la mayoría de edad penal. Una nueva interpretación”, *La Ley*, 4011 zbkia., 1996.

30. Anomalia edo asaldura sikikoa eginkizunaren ezlegezkotasuna ulertzea oztopatzen duena edo nahiz eta ulertu horrekin bat datorren portera izaten oztopatzen duena; behinbehineko buruko arazok; alkohol, droga toxiko, estupefazianteak, sustantzia sikotropikoak edo antzeko ondorioak dituen beste edozein sustantzia hartzearen ondorioz sortutako intoxikazio osoa; abstinentzia-sindromea; jaiotzatik edo umetatik gauzak ulertzeko era asalduta izatea; bidezko defentza; beharizan-egoera; beldur gaindiezina; betebeharra izatea edo legez dagokizun eskubidea, ofizioa edo kargua betetzen egotea.

31. E. GIMBERNAT ORDEIGek kritikatu egin du arau hori, bere ustez “sektarismo doktrinala” da eta; erruduntasuna aukeramenean oinarritzen da eta bere ustez bada beste aukerarik, hala nola, erruduntasuna egilearen motibazioan edo motibazio gabezia oinarritzea. “Prologo”, *aip.*, XV. or.. Ikus ere J. M. MARTINEZPEREDA RODRIGUEZ, “La imputabilidad”, *La Ley*, 3957. zk., 1996.

32. J. HOMS SANZ DE LA GARZA, *Trastorno mental transitorio y drogas que inciden en la imputabilidad*, Bartzelona, 1996.

33. Horren alde, E. GIMBERNAT ORDEIG, “Prologo”, *aip.* XIX. or..

34. guztizko *salbuesleak ez direnak*; haserrealdia edo itsukeria; arauhaustea egin dela aitortzea; kalteak konpontzea; beste antzeko edozein.

a) jardunpide judiziala bere kontra egingo dela jakin aurretik aitortzen duenean arauhaustea

b) epaiketa orala egin aurretik biktimari egindako kalteak konpondu egiten dituenean edo kalte horien eragina gutxitu egiten duenean.

Astungarrien artean (22. artikulua)³⁵ desagertu egin dira jakinaren gainean egotea eta maltzurkeriren eta nagusitasun gehikeriaren arloan bilduta zeuden beste batzuk. Era berean, astungarriak larriagoak izango dira arrazoiak arrazistak, antisemitak edo diskriminatorioak direnean. Aurreko Kodean arrazoi horiek pertsonen kontrako arau-haustek zirenean baino ez ziren hartzen kontuan, baina 1995ekoan, delitu edozein izanda ere, kontuan hartu dira.

Kode berrian ere *egoera mistoaren* barnean ahaidetasuna dago (23. artikulua)³⁶.

*Delituen eta hutsegiteen erantzukizun kriminala duten pertsonen*³⁷ sailkapena egiterakoan Kode berrian aldaketa bat egin da eta estalketa delitu mota berezi bezala zehaztu da. Orain arte, ekintzan parte hartzeko era bat zen (ezegokia), eta, hortaz, estalketa zigorgarria zen³⁸. Egilea ekintza egin duena da, berak bakarrik edo taldean egin dezake edo autoreak besteren bat erabil dezake tresna gisa (kasu honetan bitarteko) (28. artikulua); eta zigorra jartzerakoan egileak, eragileak eta laguntzaileak tratamendu bera dute.

Bitarteko baliabideak eta baliabide mekanikoak erabiltzen direnean eta erantzuleak egileak, eragileak edo zuzendariak direnean, erantzunkizuna araututa dago eta 30,2. artikuluan³⁹ zehazten den ordenean banatzen da erantzunkizuna.

Azkenik, zigorrei buruzko testu berrian formula berezia zehaztu da ohiko ekintzak leporatzeko (31. artikulua) eta horren arabera erantzunkizuna izatezko eta zuzen-

35. Maltzurkeria; moztorra, nagusitasun gehieria edo tokiaren egoeraz, eguraldiaz edo bese batzuen laguntzaz baliatzea; prezioa, saria edo promesa; arrazoi biktimaren arraza, pentsakera, erlijioa edo sinismena, etnia edo arraza batekoa izatea, sorburua, sexua, sexuorientazioa, gaixotasuna edo minusbalia denean; basakeria, errudunak izaera publikoa izatea; bererrortzea.

36. Konstituzioarekin bat etorritik, J. SANCHEZ JUNO y I. SERRANO BUTRAGUEÑO, "La posible incostitucionalidad de art. 11 CP (23 NCP)", *Actualidad Jurídica*, 1995-11-9.

37. J. A. CHOCLAN MONTALVO, "La autoría y la participación", *La Ley*, 3962. zk., 1996; M. DIAZ Y GARCIA CONLLEDO, "Autoría y participación", *La Ley*, 3984. zk., 1996.

38. R. DE VICENTE MARTINEZ, "La nueva regulación del encubrimiento en el Código Penal de 1995". *Actualidad Penal*, 1996-6-24/30.

39. 1) testuaren edo dena delakoaren benetako egileak edo eragileak; 2) argitalpenaren edo programaren zuzendariak; 3) argitaletxeko, enpresa igotzaileko edo enpresa hedatzaileko zuzendariak; 4) grabazioa, inpresioa edo erreproduzioa egin duen enpresako zuzendariak; ondorengo zenbakietan aipatzen direnei erantzukizunak eskatuko zaizkie, baldin eta ezineskoa bada aurreko zenbakietakoei jarraitzea (erantzukizun penalik ez duten kasuetan ezik).

bidezko⁴⁰ administrariari leporatuko zaio, baina ez pertsona juridikoen kasuan bakarrik, ustezko jarduera beste baten izenean egiten denean edo legez ordezkot denean edo bere borondatez ordezkot denean ere erantzule izango da, eta, gainera, maila berebean.

2. Delituaren ondorio juridikoak

Delituaren teorian arloan⁴¹ aldaketak garrantzitsuak izan diren arren, aldatarik garrantzitsuenak⁴² zigorren eta segurtasunneurrien⁴³ arloan egin dira. Aldaketa horien helburuak hauek izan dira: zigorren eta segurtasunneurrien arloan sistema eraberritzea, horiek zehazteko eta aplikatzeko arauak erraztea eta beste konponbide batzuk aurkitzea. Hala ere, badude zenbait zailtasun arauetan eta nahasteak sortzen dira, batetik, zenbait zigorretan zigorren eta neurrien arteko bereizketa egiten delako eta, bestetik, zigorra edo zigorraren ordezkot zehazterakoan arriskugarritasunirizpideak erabili behar direlako⁴⁴.

A) Zigorrak

Kode Penalean hiru zigormota zehaztu dira: askatasuna kentzea, beste esku-bide batzuk kentzea eta isunak (32. artikulua).

a) Askatasuna kentzen duten zigorrak

Askatasuna kentzen duten zigorrak honela sailkatu dira:

– gartzela: sei hilabetetik hogeit urtera artekoa. Kasu berezietan hogeita bost urtera artekoa izan daiteke eta hogeita hamar urtera artekoa ere izan daiteke.

– asteburuko atxilotzea; hogeita hamasei orduko hogeita lau asteburura artekoa izan daiteke.

– erantzukizun pertsonal ordezkotzailea isuna ez ordaintzeagatik.

40. J. M. GOMEZ BENITEZ, "Administradores de hecho y de derecho en el nuevo Código Penal", *El nuevo Código penal. Delitos Societarios e insolvencias punibles*, Madril, 1996, 143. or. eta ondorengoak. Ikus ere A. ALONSO DE ESCAMILLA, *Responsabilidad de directivos y órganos de empresa y sociedades*, Madril, 1996; J. M. GARRETA BENITEZ, *La responsabilidad civil, fiscal y penal de los administradores de las sociedades*, Madril, 1996.

41. F. BENTABOL MANZANARES, *El Código Penal de 1995. Resumen práctico de novedades*, Madril, 1996.

42. E. GIMBERNAT ORDEIG, "Prólogo", *aip.*, XIX. or.; J. M. VALLE MUÑIZ, "Prólogo", *aip.*, 14. or.; Epaiaketen ikuspunturako ikus J. L. GOMEZ COLOMER, "El sistema de penas y su repercusión procesal", *La Ley*, 3991. zk., 1996.

43. L. GRACIA MARTIN, M. A. BOLDOVA PASAMAR, M. CARMEN ALASTUEY DOBON, *Las consecuencias jurídicas del delito en el nuevo Código Penal español*, Valentzia, 1996; B. MAPELLI CAFFARENA, J. TERRADILLOS BASOCO, *Las consecuencias jurídicas del delito*, 3. arg., Madril, 1996; C. MOLINA BLAZQUEZ, *La aplicación de la pena. Estudio práctico de las consecuencias jurídicas del delito*, Bartzelona, 1996.

44. M. I. SANCHEZ GARCIA, "El sistema de penas (I)", *aip.*, 1. or..

Espanian gartzelaratzearen iraupen luzeena hogei urtekoa izateak ez du esan nahi onberagarritasuna handiagoa denik. Bestalde, oraingo Kodearekin ez da posible lanen bidez zigorrak barkatzea (lehen ia zuzen murrizten zen herenera gartzelaldia) eta zenbait kasu berezietan posiblea da gartzela zigorra hogeita bost⁴⁵ edo hogeita hamar urtera artekoa⁴⁶ izatea eta, horretaz gain, baldintzapeko askatasuna edo gartzelaonurak lortzeko arauak askoz ere gogorragoak dira. Horrela, bada, ezin daiteke esan Kode berria onberagoa denik; aurreko Kodearekin konparatuz oraingo Kodean oso kasu gutxitarako zehaztu da zigorra herenera jeitzea. Hori guztia, kontuan izan gabe Zati Berezia oso izaera eta eragin desberdindun delituetarako zehaztu diren zigorren artean desoreka nabarmena dagoela.

Askatasuna kentzen duten zigorren artean aipatzekoak dira, berriak diraeta, asteburuko atxilotzeak (ostiraletik igandera artekoak dira; atxilotuarekin akordioa egin eta ministerio fiskalak esan beharrekoa entzun ondoren aste barruan ere bete daiteke zigorra) (37. artikulua). Asteburuko atxilotzea zigor nagusietan (Kodeak horrela zehazten duenean) zein askatasuna kentzen duen beste zigor baten orde zezarri daiteke, eta, kasu horietan, gartzelako aste bat asteburuko bi atxilotzerekin parekatuko da⁴⁷. Zigorra betetzeko⁴⁸ bakardadeko isolamenduan egon behar da (690/1996 EDko 17. artikulua) eta, besterik ezean, atxilotuaren etxetik hurbilen dagoen gartzelan bete behar da zigorra; auzitegibarrutian ez bada gartzelarik, udaleko gordailuan bete daiteke.

b) Eskubideak kentzen dituzten zigorrak

Eskubideak kentzen dituzten zigorrak honako hauek dira (39. artikulua):

– gaitasungabetzeak: gaitasungabetze osoa edo gaitasungabetze berezia kargu edo enplegu publikorako, lanbiderako, industriarako edo komertziorako, gurasoaginterako, tutoretzarako, boto emate pasiboaren eskubiderako edo beste edozein eskubiderako.

– enplegua edo kargu publikoa kentzea.

– eskubideak kentzea: motordun ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko baimena kentzea, armak edukiteko edo izateko baimena kentzea, leku jakin batean bizitzeko edo bertara joateko eskubidea kentzea.

– elkartearantzat onuragarriak diren lanak egitea.

45. kondenatua bi delitugatik edo gehiagotik zigortu dutenean eta delituetariko bati dagokion zigorra, legearen arabera, hogeit urtera arteko gartzela denean (70,2 a atala).

46. kondenatua bi delitugatik edo gehiagotik zigortu dutenean eta delituetariko bati dagokion zigorra, legearen arabera, hogeit urte baino gehiagoko gartzela denean (70,2 b atala).

47. Bi aldiz bertaratu ez bada justifikatu barik Epaille Begiraleak atxiloteta etenik gabe betetzea erabaki dezake.

48. Ikus 690/1996 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, elkartearantzat onuragarriak diren lanak edo asteburuko atxilotzeak zein egoeratan beteko diren zehazten dituena (1996ko maiatzaren 17ko BOE, 120. zk.)

Askatsuna kentzen duten zigor berrien artean aipatzekoa da elkartearentzat onuragarriak diren lanak egitearen zigorra⁴⁹. 49. artikuluan zehaztutakoaren arabera, zigor hori ezartzeko zigortua ados egon behar da eta zigorra betetzeko elkartearentzat onuragarria den soldarik gabeko jarduera egin behar da⁵⁰; jarduera ezin izango da zigortuaren duintasunaren kalterako izan eta egunean gehienez zortzi orduz eta gutxienez lau orduz arituko behar da lanean. Egin beharreko lanak administrazioak emango ditu, jardueraren bidez ezin izango da diruirabazirik lortu, mota honetako zigorrarekin daudenek gizartesegurantzaren arloan gartzeletako legedian zigortuentzat zehazten den babes bera izango dute eta lana epai-learen edo zigorra ezarri duen epaimahaiaren kontrolpean egingo da. Zigor ez hain larrietarako egin beharreko zigororduak laurogeita hamaseitik hirurehun eta laurogeita lau ordura artekoak dira; zigor arinentzat, ordea, hamasei ordutik laurogeita sei ordura artekoak (33,3 j) eta 4 e) artikulua).

Hala ere, eta esanak esan, oso kasu gutxitarako aurreikusten da Kode berrian elkartearentzat onuragarriak diren zigorrak ezartzea; egia esan, bi kasutarako baino ez da ezartzen zigor mota hori: zigor nagusia asteburuko atxilotzea (88,2. artikulua) denean ordezkiko zigor bezala eta isuna ez ordaintzeagatik erantzukizun ordezkatzailea betetzeko era bezala (kasu horretan askatasunik gabeko egun bat lanjardunaldi batekin parekatzen da) (53,1 II. artikulua).

c) Isuna

Oro har, isunaren zigorrak Eskandinabiako egunakisuna sistemarekin bat dator (50. artikulua)⁵¹ baina, hala ere, aurreikusita dago isunaren zenbatekoa eragindako kaltearen, delitua jasan duen objektuaren balioaren eta horrek ekarritako onuraren araberakoa izatea (52. artikulua). Egunakisuna sistemaren bereiztu egiten dira zigorraren larritasuna egunakisunaren zenbatekoan zehazten da eta zenbateko ekonomiko. Azken hori zehazteko kontuan izan behar dira zigortuaren egoera ekonomikoa eta, era berean, egoera ekonomikoa kalkulatzeko kontuan izango direnak honako hauek dira: ondasunak, dirusarrerak, betebeharrak, famili samak eta beste egoera batzuk (50,5. artikulua).

Isuna bost egunetik bi urteisun artekoa izan daiteke, isuna ordezkiko zigorra ez den kasuetan ezik (50,3. artikulua). Egunean ordaindu beharrekoa berrogeita hamar eta hirurehun mila artekoa izan daiteke; hilabeteak hogeita hamar egunekoak dira eta urteak hirurehun eta hirurogeikoak (50,4. artikulua).

49. Eskubideak kentzen dituzten zigorren arloan aipatzekoa da zenbait kasutarako beste edozein eskubide inolako epe mugarik gabe kentzen dituzten zigorrak aurreikusi direla. Formula hori kritikagarria da erabat, hori Kode Penalaren zati berezian zigor bezala aurreikusi diren eskubide kentzeak babesteko era baino ez da eta (adb.: intsumizio kasuak).

50. 690/1996 Errege Dekretuko 1. atalean zehaztutakoaren arabera elkartearentzat onuragarriak diren lanak egitea balioagarritasun publikoa, gizartearentzat interesdunak eta heziketarako balioa duten jardueretan inolako soldatarik jaso gabe laguntzea da. Jardueren helburua, ahal den neurrian behintzat, egin den ekintza debekatuaren bidez kaltetu den elkarteari kaltea konpontzea da.

51. J. L. MANZANARES SAMANIEGO, "La pena de multa", *La Ley*, 4015. zk., 1996.

Isuna ordaintzen ez bada, erantzukizun pertsonal ordezkatzailerak honako izan daiteke(ezin izango da ezarri zigortuak lau urte baino gehiagoko zigorra duenean):

– ordaindu gabe dituen bi eguneko kuota bakoitzeko egun bat askatasunik gabe (asteburuko atxiloketa bete daiteke) eta isuna proportzionala den kasuetan gehie-
nez ere urte bete egon daiteke askatasunik gabe.

– elkartearantzat onuragarria den lana.

d) Zigormotak, larritasunaren arabera

Zigorrak, larritasunaren araberak, era honetan sailkatu daitezke: zigor larriak, ez hain larriak eta arinak. Mota bakoitzean bilduta dauden zigorrak hauexek dira (13. artikulua):

– Zigor larriak, 33,2. artikuluan zehaztutakoak:

- a) hiru urtetik gorako gartzelazigorra
- b) gaitasungabetze osoa
- c) hiru urtetik gorako gaitasungabetze bereziak
- d) hiru urte baino gehiagorako enplegua edo kargu publikoa kentzea
- e) motordun ibilgailuak edo ziklomotorrak gidatzeko eskubidea sei urte baino gehiagorako kentzea
- f) armak edukiteko edo eramateko eskubidea sei urte baino gehiagorako kentzea
- g) leku jakin batean bizitzeko edo egoteko eskubidea hiru urte baino gehiagorako kentzea

– Zigor ez hain larriak, 33,3. artikuluan arabera:

- a) sei hilabetetik hiru urtera bitarteko gartzelazigorra
- b) hiru urte baino gutxiagorako gaitasungabetze bereziak
- c) hiru urte baino gutxiagorako enplegua edo kargu publikoa kentzea
- d) motordun ibilgailuak edo ziklomotorrak gidatzeko eskubidea urte bete eta egun batetik sei urtera bitartean kentzea
- e) armak edukiteko edo eramateko eskubidea urte bete eta egun batetik sei urtera bitartean kentzea
- f) leku jakin batean bizitzeko edo egoteko eskubidea sei hilabetetik hiru urtera bitartean kentzea
- g) bi hilabete baino gehiagoko isuna
- h) isun proportzionala; berdin da zenbatekoa
- i) zazpitik hogeita lau asteburu bitarteko atxilotzea
- j) elkartearantzat onuragarriak diren lanetan laurogeita seitik hirurehun eta laurogeita lau ordu bitartean aritzea

– Zigor arinak 33,4. artikulua arabera.

a) motordun ibilgailuak edo ziklomotorrak gidatzeko eskubidea sei hilabetetik hiru urtera bitartean kentzea

b) armak edukiteko edo eramateko eskubidea hiru hilabetetik urte batera bitartean kentzea

c) bost egunetik bi hilabetera bitarteko isuna

d) asteburu batetik seira bitarteko atxilotzea

e) elkartearantzat onuragarriak diren lanetan hamasei ordutik laurogei eta hamasei ordura bitartean aritzea

e) *Zigorak zehazteko eta aplikatzeko sistema*⁵²

Kode zaharrear oso zaila zen zigorrak zehazteko eta aplikatzeko sistema eta, horrela, bada, Kode berrian sistema hori errazteko ahalegina egin dute. Gauzak horrela kendu egin dute Espainiako zuzenbidean ohiko ziren eskala graduatua eta zigorra hiru mailatan banatzen zuen sailkapena. Oraingo Kodean zigorrak bi multzotan banatu dira: goiko erdia eta beheko erdia. Hala ere, oso tarte estua uzten saio epaileari zigorra ezartzerakoan, oraindik ere oso zehaztuta daude inguruabar astungarriak eta/edo aringarriak aztertzeke jarraitu behar diren irizpideak (66. artikulua).

Ereduzko lehien arloan⁵³, ekintza batean bi delitu edo gehiago egiten direnean, suminduraren printzipioari jarraituko zaio eta ezarriko den zigorra deliturik larrienari goiko erdian dagokiona izango da.

Benetako lehiari dagokionez (epaitzen ari diren delitu zigorgarriak oso desberdinak direnean), gehitu egiten dira materialak, baina bi muga zehaztu dira:

– zigorrik larrienaren hirukoitza, edo

– hogeitau urte; hogeitau urte bi delitugatik edo gehiagotatik kondenatu denean eta delituetariko betegatik gehienez hogeitau urteko gartzelazigorra ezarri denean; hogeitau hamar urte bi delitugatik edo gehiagotatik kondenatu denean eta zigorretariko bati, legearen arabera, gutxienez ere hogeitau urteko zigorra dagokionean.

Agertzen da Kode berrian ere, zaharrear antzera agertu ere, delitua behin eta berriro egitea masa subjektu pasiboarekin (74. artikulua).

Bukatzeko, badago gartzelazigorra ez laburtzearen alde egiten duen xedapen bat xedapen hori ez da oso onargarria; oso gogorra da⁵⁴ eta gainera zalantzan jarzen du Konstituzioan zehazten den gizarteratzearen printzipioa⁵⁵. Xedapen

52. M. C. MOLINA BLAZQUEZ, *La aplicación de la pena. Estudio práctico de las consecuencias jurídicas del delito*, Bartzelona, 1996.

53. J. DELGADO GARCIA, "Los concursos en el Derecho Penal", *La Ley*, 4015. zk., 1996.

54. Guztienatik, M. I. SANCHEZ GARCIA, "El sistema de penas (II)", *aip.*, 3. or..

55. D. LOPEZ GARRIDO, M. GARCIA ARAN, "El Código Penal de 1995...", *aip.*, 29. or. eta ondorengoak. G. QUINTERO OLIVARES, "La reinserción y el marco constitucional del sistema de penas", *Cuadernos Jurídicos*, 36, 1995.

horren arabera ez da onartzen gartzela zigorra laburtzea gartzelaratuak arrisku kriminal handia duenean, kondenaren zigorra oso handia denean edo benetako lehiako arau murrizgarriari jarraituz ezarritako zigor guztien erdia baino gutxiago betetzea ekarriko lukeen kasuetan. Gauzak horrela, gartzela-onuretarako edo baldintzapeko askatasuna lortzeko denborarako oinarria ezarritako zigor guztien batura izango da. Salbuespena izango da Zaintzako Epaileak baldintzapeko askatasuna eta gartzelaonura lortzeko ohiko sistema erabiltzea agintzen duenean⁵⁶.

f) Askatasuna kentzen duten zigorren ordezkokoak eta zigor horietarako aukerak

Orain arte Espainiako Zuzenbide Penaleak askatasuna kentzen zuten zigorrei ordezeko irtenbideak emateko arloan izan dituen gabeziak izan dira doktrinak gehien zalatu duen puntuetariko bat. 1995eko Kodeak hautsi egin du egoera hori eta bildu egin ditu ohikoa den zigorra baldintzapean etetzea, askatasuna kentzen duten zigorren ordezkokoak eta baldintzapeko askatasuna.

a') Askatasuna kentzen duten zigorrak bertan behera uztea

Askatasuna kentzen duten zigorrak bertan behera uzteko, isuna ez ordaintzeagatik erantzunkizun pertsonal ordezkatzaileraren barne (80. artikulua eta ondorengoak), honako epeak zehaztu dira: askatasuna bi urte baino gutxiagorako kentzen dutenean bi urtetik bost urtera bitartekoa eta zigorrak arinak direnean bi urte eta hiru hilabetetik urte betera bitartekoak. Derrigorrezkoa da primarietate deliktiboan (kontuan izan gabe arduragabekeriagatik ezarritako zigorrak) eta erantzukizun zibilak beteta izatea (ezinezkotzat jo denean ezik). Bertan behera utzi den zigorra gartzela denean epaileak eginkizunak edo betebeharrak ezar ditzake⁵⁷ eta administrazioko zerbitzuek hiru hilabeterik behin gorabeheren berri emango dute. Epaileak agindutakoa behin eta berriro betetzen ez bada edo zigorra kendu den epean delituren bat egiten bada, epeleak baliogabetu egin dezake zigorra kentzearen agindua⁵⁸. Bertan behera utzi den zigorra sekzio berezian jarri behar da, Zigorren eta Auzi-herlarien Errolda Nagusiko artikulua berezian, hain zuzen ere. Frogaldian egonda gartzelaratuak ez baldin badu deliturik egiten eta epaileak agindutako eginkizun eta betebeharrak guztiak betetzen baditu, epeleak zigorra barkatzeko agindua emango du eta agindu horrekin batera zigorra kendu egingo da erroldatik eta aurrekari penalak ezin izango dira izan kontuan inongo ondorioetarako.

56. V. CERVELLO DONDERIS, "Restricción de beneficios penitenciarios en el Código Penal de 1995", *Cuadernos Jurídicos*, 42, 1996; J. R. DE PRADA, "Delitos relacionados con el terrorismo en el Código Penal de 1995", *Jueces para la democracia*, 25, 1996, A. VERCHER NOGUERA, "Terrorismo y reinserción social", *La Ley*, 3985. zk., 1996.

57. Zenbait lekutara joateko debekua; bizilekutik aldentzeko debekua; aldiroaldiro epailearengana, epaitegira edo administrazioaren zerbitzu batera norbera bertaratzea, zenbait egitarauetan parte hartzea, hala nola, heziketakoa, lan arlokoak, kultural, bideheziketakoa, sexuheziketakoak edo antzekoak; zigortuaren gizartearatzea errazteko helburuarekin ezartzen diren beste zenbait betebeharrak (bera ados bada-go) (83. atala).

58. Ezarritako eginkizunak edo betebeharrak ez badira behin eta berriro hautsi epaileak edo epaimahaiak honakoa erabaki dezake: portaerairizpidea aldatzea edo zigorra kenduta duen epea luzatzea (gehienez ere bost urterako).

Kode Penaleko 87. artikuluan zigorra baldintzapenean kentzeko aukera zehaztu da Kode zaharrean ere agertzen zen horrelako zerbit. Aukera hori gehienez ere hiru urteko gartzela zigorra dutenentzat eta delitua alkohol, droga toxiko, estupefaziente edo psikotropikoekiko menpekotasuna delaeta egin dutenentzat. Zigortua ezin izango da izan behin eta berriro zigortutakoa⁵⁹ eta ondo frogatuta egon behar da zigortuak ez duela menpekotasunik edo tratamendua egiten ari dela. Betebeharrekoa da ere frogaaldian deliturik ez egitea (hiru urtetik bost urtera bitartean) eta tratamenduren bat egiten baldin bada, bertan behara utzi gabe bukatu arte egitea. Nahiz eta berrerortze kasua izan, zigorra kentzea erabaki daiteke gertaeraren eta egilearen egoera kontuan izanda.

Bada ere beste kasu berezi bat zigorra baldintzapean kentzeko, zigortuak sendaezina den gaixo larria duenean, hain zuzen ere. Kasu horietan, edozein motako zigorra ken daiteke (askatasuna kentzen duen zigorra) eta ez da inolako baldintzarik bete behar. Salbuespena da aurretiaz eta arrazoi beragatik beste zigorren bat kendu den kasua (80,4. artikulua).

b') Zigorren ordezkoak

Urte bete baino gutxiagoko gartzelazigorren kasuan (bi urtera artekoak ere izan daitezke zigortua ezohikoa denean) ordezko zigorra ezar daiteke eta gartzelara bidali beharrean asteburuko atxilotzea edo isuna ezar daiteke. Kasu horietan gartzelako aste bakoitzeko bi asteburuko atxilotzea egin beharko da eta gartzelako egun bakoitzeko bi isunkuota (88. artikulua). Asteburuko atxilotzeari ere ordezkoa ezar dakiok (atxilotzea ezin daiteke izan ordezko zigorra) eta ordezko zigorak isuna edo elkartearentzat onuragarriak diren lanak egitea izango da. Horrelakoetan asteburuko atxiloteta bakoitzeko lau isunkuota edo bi lanaldi egin behar dira (88. artikulua).

Atzerritarren kasuan (89. artikulua) askatasuna kentzen duten zigorren ordez herrialditik kanpora botatzea ezar daiteke. Kasu horietan askatasuna kentzen duen zigorra gehienez sei urtekoa izan behar da eta ordezko zigorra herrialdetik kanpora hiru urtetik hamar urtera bitartean egotea izan daiteke. Zigortuak sei urte edo gehiagoko zigorra badu eta zigorren hiru laurdenak bete baditu, kasu horretan ere, ordezko zigorra ezar daiteke. Espainiatik kanpora bota ondoren ezin izango dira bertara bueltatu hiru urtetik hamar urtera bitarteko epean.

c') Baldintzapeko askatasuna

Hori da askatasuna kentzen duten zigorren azkenengo ordezkoa (90. artikulua eta ondorengoak) eta, hori da ere, hirugarren graduko zigorra duten gartzelara-tuentzat zigorra betetzeko azkenengo fasea. Baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintzak hauek dira: zigorren hiru laurdena beteta izatea, portaera ona eta kasuankasuko gizarteratzeko baldintzak onak izatea.

Zigorren hiru laurdena beteta izatearen baldintza arindu egin daiteke zigortuak gartzelako lanetan, ekintza kulturaletan eta aisialdiko jardueretan gozoz

59. Hau da, bost urteko epean ez izatea Kodeko atalburu berean zehaztutako delituengatik hiru kondena edo gehiago (94. atala).

parte hartu duenean. Horrelakoetan nahikoa da zigorraren bi herenak bete izana (91. artikulua). Hirurogeita hamar urte bete duten zigortuek edo adin hori gartzelan beteko dutenek edo sendaezina den gaixotasun larria dutenek ere lor dezakete baldintzapeko askatasuna (92. artikulua).

Baldintzapeko askatasunaren kasuan ere portaeraarauak jar daitezke. Askatasuna lortu duenak ez baldin baditu arauok betetzen edo baldintzapean dagoen artean delituren bat egiten badu Zaintzako epaileak baliogabetu egin dezake emandako askatasuna eta zigortua berriz ere gartzelara joan beharko da eta dagokion aldian eta graduan egon beharko da bertan; hori guztia ez da baldintzapean pasa duen egunkopuruaren kaltetarako izango (93. artikulua).

B) Zigorneurriak

Kode penal berrian zigorrak ezezik, segurtasunneurriak ere zehazten dira⁶⁰. Lehen neurri horiek 1970eko Arriskugarritasun eta Gizarteratzeari buruzko Legean zeuden araututa baina Konstituzioren kontrakoak zirelaeta azken urteotan ez dira erabili. Hala ere, legelariak ez dute inoiz neurri horiek indargabetzeko ahalgina egin⁶¹.

Kode berrian zehaztu diren neurriak delitua eginda dagoenean ezartzekoak dira Arriskugarritasunari eta Gizarteratzeari Buruzko Legean ez zen horrela. Horren arabera, justifikaziorik gabeko delitua egin dela frogatu behar da eta neurriak ezartzeko oinarria delitugilearen arriskugarritasun kriminala da (6.1. artikulua). Neurriek ezin dute inolaz ere gainditu muga hori eta, gainera, ezarritako neurria ezin izango da izan delituari ustez dagokion zigorra baino larriagoa ez eta iraupen luzeagokoa ere.

Kodea penalean zehaztu diren neurrietariko batzuk askatasuna kentzen dute eta beste batzuk, ordea, ez dute askatasunik kentzen (96. artikulua).

Askatasuna kentzen duten neurriak hauek dira: zentro psikiatrikoan, ohiturak kentzeko zentroan edo hezkuntza bereziko ikastetxean sartzea.

Askatasuna kentzen ez duten neurriak, ordea, hauek dira⁶²: leku jakin batean bizitzeko edo egoteko debekua, motordun ibilgailuak edo ziklomotorrak gida-

60. I. BICERIEGO GONZALEZCAMINO, "El sistema de medidas de seguridad", *La Ley*, 3961. zk., 1996; J. C. RIOS MARTIN, "Las medidas de seguridad en el Código Penal de 1995", *Tapia*, 86, 1996.

61. Ikus, Kode Penal berriko xedapen indargabetzaile bakarra 1 c).

62. Askatasuna kentzen ez duten zigorrek iraupenmuga dute (105. atala).

Gehienez ere bost urterako direnak: osasunzentroetan edo gizarteko osasunzentroetan egin beharreko kanpotratamendua, derrigorrezko edo debekatutako bizilekua, dena delako lekuetara joateko debekua edo alkohola saltzen duten tokietara joateko debekua, gurasoaginterako debekua, zenbait egitarauetan parte hartzea, hala nola, heziketakoa, lan arlokoak, kulturalak, sexuheziketakoak edo antzekoak.

Gehienez ere hamar urterako direnak: armalizentzia edo baimena kentzea eta motordun ibilgailuak edo ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentzea.

tzeko eskubidea kentzea, lana kentzea⁶³ eta herrialdetik botatzea (bertan bizi ez diren atzerritarrentzat)⁶⁴.

Neurriak honako kasuetan ezartzen dira: delitu bezala aurreikusita dagoen ekin-tza burutu egin denean eta ekintzatik eta delitugilearen egoeratik berriro ere delituak egingo dituela antzeman daitekeenean. Edonola ere, neurriak ezartzeko baldintzak oso zehatzak dira⁶⁵:

a) legeak aurreikusten duen zigorrak ez baldin badu askatasunik kentzen, neurriak ere ezin izango du askatasuna kendu. Ezar daitezkeen neurriak 105. artikuluan zehaztutakoak dira: kanpoko tratamendua, leku jakin batean bizitzeko debekua edo agindua, zenbait toki edo establezimendutara joateko debekua, gurasoagintea, pres-takuntza, kultura... egitarauetara joatea, armalizentzia edo baimena kentzea, motordun ibilgailuak edo ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentzea (hamar urtera bitartean);

b) bestalde, egozgarri eta erdiegozgarrientzako barneratzeen iraupenak ezin izango du izan egiletzat jo eta ustez askatasunik gabe egon beharko litzatekeen den-bora baino luzeagoa;

c) zigorra eta neurriak baterabildu direnean, neurriak izango du lehentasuna eta neurria dagokion zigor zatiarekin parekatuko da. Behin neurria alztatuz gero, epaileak edo epaimahaiak gainontzeko zigorra ez betetzeko agindua edo zigorra askatasuna kentzen ez duten zigorretariko bategatik (105. artikuluan zehaztutako bategatik) ordezkatzeko agindua eman dezake, baldin eta zigorra betez arris-kuan jarriko balitz neurrien bidez lortutakoa.

Neurriaren bukaera erabakitzea (kriminalak arriskurik ez duenean) epaileari edo epaimahaiari dagokio, baina horretarako proposamena Zaintzako epaileak egin behar du. Era berean, berei dagokie ezarritako neurriaren ordezkari beste bat jartzea edo neurria kentzea. Kasu horietan, zehaztu den denboraldian deliturik ez egiteko baldintza jarriko da; denboraldi hori ezin izango da izan betetzear geratzen den denbora baino luzeagoa (97. artikulua).

C) Ondorio osagarriak

Segurtasun neurriez gain (aparteko tituluari: VI. Tituluari), ondorio osagarriak zehaztu dira; horien helburua ekintza deliktiboa eta horren ondorioak berriro ez errepikatzea da (129,3. artikulua).

63. 107. atalean zehaztutakoari jarraituz, eskubide bat edo lanbidea, ofizioa, industria edo denda, kargua edo enplegua betetzeko eskubidea honakoetan kenduko da (urte batetik bost urtera bitartean): gehiegikeria egin denean edo horiekin zerikusia duen ekintzaren batetan delitua egin denean eta inguruabarrak aztertzerakoan delitu hori edo antzekoren bat berriz egiteko arriskua dagoela antzematen denean. Hala ere, zigor hori ezarriko da baldin eta 20. ataleko hiru lehenengo zenbakietan zehaztutako salbuesleeriko kasu batean bada delitugilea.

64. Neurri hori, izan ere, ezarri daitezkeen segurtasunneurriak (askatasuna kentzen dutenak) ordezkatzeko aurreikusi da. Kanpoan egon beharreko denboraldia epeleak zehaztu behar du baina gehienez ere hamar urtekoa izan daiteke 8108. atala).

65. VALLE MUÑIZen ustez Kode berriko neurriak erruduntasunik ez dagoenean edo erruduntasuna gutxitu egin den kasuetan ezarritako zigorrak ordezkatzeko era aurretik delitugilearen arriskugarritasun kriminala konprobatu behar da baino ez dira. "Prólogo", *aip.*, 16. or..

Ondorio osagarrietariko batzuk honako hauek dira.

- delitua egiteko erabili diren efektu eta tresnak konfiskatzea eta baita lortu diren irabaziak ere, edozein izanda jasan duten aldaketa. Kode Penalean puntu hori delitu edo falta "mingarrientzat" baino ez da zehaztu (127. artikulua),

- enpresa, lokalak edo establezimenduak ixtea (behin-behineko bost urtera artekoa edo behin betiko),

- baltzua, elkartea edo fundazioa banatzea,

- baltzuak, enpresak, fundazioak edo elkarteak egiten dituen jarduerak etetea (bost urtera arteko etena),

- baldin eta jarduera, merkatuoperazio edo antzeko negozioen bidez delitua egin, bultzatu edo estali egin bada, ekintza horiek egiteko debekua (behin-behineko bost urtera artekoa edo behin betiko),

- enpresan eskuhartzea langileen edo hartzekodunen eskubideak zaintzeko (gehienez bost urterako)⁶⁶.

Konfiskazioaren kasuan ezik, beste kasu guztien helburua enpresen arloan edo pertsona juridikoen bidez egindako ekintzak konpontzea da. Horien erantzukizun penala onartu egingo balitz⁶⁷ ez lirateke gutxi izango ezarri beharreko "zigorrak", baina kasu horientan "zigor" esan beharrean "ondorio osagarri" esaten da.

D) Erantzukizun zibila

Kode berrian gauza berri gutxi gehitu dira erantzukizun zibilira buruz (109. artikulua eta ondorengoak)⁶⁸; erantzukizun hori penalarekin batera doa beti, kaltetuak zibilaren bidea aukeratzen duen kasuetan ezik.

Erantzukizun zibilari buruzko arauen oinarriak oraindik ere honako hauek dira: ondasuna berritzea (kalteak eta galerak ordaindu), kaltea konpontzea (emateko, egiteko edo ez egiteko beharra izan daiteke) eta sortu diren kalte material eta moralengatik kalteordainak ematea. 114. artikuluan, horretaz gain, honako hau ere

66. Empresa, lokala edo establezimendua behinbehinik ixtea eta elkartearen, enpresaren, fundazioaren edo baltzuaren jarduerak etetzea epaile izapidegileak erabaki dezake auziaren izapideak egiten ari diren artean (129.2. atala).

67. D. LOPEZ DE GARRIDO, M. GARCIA ARAN, *El Código de 1995...*, aip., 83. or..

68. I. SERRANO BUTRAGUEÑO, "La responsabilidad civil derivada del delito", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 5, aip., 639. or. eta ondorengoak. Prozesuari buruz ikus V. HERNANDEZ MARTIN, "Límites de la responsabilidad civil y de las medidas cautelares en el proceso penal en caso de pluralidad de responsables", *La Ley*, 3983. zk., 1996. Kode berrian motordun ibilgailuekin zerkusua duten delitu eta hutsegiteen arloko erantzukizun zibilari buruz ikus, J. A. CABALLERO GEA, *La responsabilidad penal y civil dimanantes del accidente de circulación*, Madril, 1996; R. MACIA GOMEZ, *Delitos y faltas relacionados con la circulación de vehículos a motor en el Código Penal de 1995*, Bartzelona, 1996; A. RUBIO MORALES, *Las imprudencias y otras conductas derivadas del tráfico automovilístico y su responsabilidad civil en el nuevo Código Penal*, Madril, 1996.

zehaztu da: biktamak berak eragina izan badu sortutako kaltean epaileak edo epaimahaiak murriztu egin dezake kaltearen konpontzea edo kalteordaina.

Erantzukizun zibila duten pertsonen arloan ere ez da aldaketa askorik egon (116. artikulua eta ondorengoak), baina irizpide orokorrekin batera aseguruenpresek eta errakuntza egon den kasuetan ekintza egin dutenek duten erantzukizun zibil zuzenari buruzko aipamena egin da. Erantzule zibil ordezkatzailerik buruzko arauetan⁶⁹ ere aldatetak egon dira eta absoluzioepaien kasuan epaileak edo epaimahaiak erabaki behar du nor den erantzulea, baldin eta horrela dagokion unean ekintzen erreserba egin ez bada erreklamazioa beste bide batetik egiteko (119. artikulua).

3. Erantzukizun kriminalaren iraungipena

Kode Penaleko I. liburuko arauekin bukatzeko erantzukizun kriminalaren eta bere ondorioen iraungipena aipatuko ditugu (130-137 artikulua, VII. titulua).

Erantzukizun kriminala iraugitzeko arroiak hauek dira (130. artikulua):

- erreduna hiltzea
- zigorra betetzea
- indultua⁷⁰
- delitua eta zigorra preskribatuta egotea (genozidio delituek eta genozidio-agatik ezarri diren zigorrek ez dute preskribatzen)⁷¹

– irainduak barkamena ematea; legeak horrela zehaztu duen kasuetarako bakarrik da baliogarria eta era zehatzean eman behar da zigorra betetzen hasi aurretik. Hala ere, adin txikikoen edo ezinduen kontra egindako delituen kasuan gerta daiteke epaileak, fiskalak esan beharrekoa entzun ondoren, haien ordekariek emandako barkamena ez onartzea.

Edonola ere, delituaren ondorio juridikoak ez dira guztiz iraungitzen erantzukizun kriminalarekin; hor daude aurrekari kriminalak edo segurtasunneurriak, eta horiek etetzeko 136. artikuluan eta ondorengoetan zehaztutakoari jarraitu behar zaio.

Delituaurrekariak indarbagetzeko (136. artikulua), delituak publikoak ez direnean, derrigorrezkoa da batetik, erantzukizun zibila beteta izatea, epaileak kau-

69. Ikus, F. SOTO NIETO, "La responsabilidad civil subsidiaria del Estado y entes públicos en general (art. 121 C. P.)", *La Ley*, 3964. zk., 1996.

70. Kode berrian erantzukizun zibila kentzeko arrazoen artean ez da aipatzen amnistia. Hala ere, eta arrazoi osoz, QUINTERO OLIVARESek aipatu du horrek ez duela esan nahi aurrerantzean debekatu egingo denik, errekurso berezia denez ematen duen lege berean arautzen da eta.

71. J. GOMEZ DE LA ESCALERA, "Novedades en la prescripción de las infracciones penales y de sus penas", *La Ley*, 3987. zk., 1996; F. PASTOR ALCOY, *La prescripción en el Código Penal de 1995 y su aplicación retroactiva. Comentarios y formularios*, Valentzia, 1996. 135. atalean segurtasunneurrien iraungitzea ere jaso da.

dimengabea dela esan duen kasuan ezik, eta, bestetik, zenbait epe pasata egotea⁷². Kode berrian epe horiek gehitu egin dira. Edonola ere, nahiz eta delituurrekariak indargabetuta egon indargabetzea ofizioaren bidez agindu daiteke epaileak edo epaimahaiak indargabetu diren aurrekarien egiaztagiriak egin ditzake, hala eskatuz gero. Horrela, bada, egiaztagirian adierazi egin beharko da aurrekariak indargabetuta daudela.

Segurtasunneurriak direlaeta anotazioak indargabetzeko beharrezkoa da neurria beteta edo preskribituta egotea. Indargabetzea egin artean, epqileentzat, apaimahaintzat edo, legeak hala zehaztu duen kasuetan, administraziooko agintarientzat egindako egiaztagirietan baino ez dira zehaztuko indargabetutako aurrekariak. Hori guztia 137. artikuluan zehaztu da.

IV. ZATI BEREZIA: DELITUAK⁷³

Egozpenari eta erantzukizun penalarri buruzko arauak zehaztuta daudenez, Kode berriko II. eta III. liburuetan arauhausteen definizioa (13. artikuluan erabilitako terminologiaren arabera delitu larriak, ez hain larriak eta faltak) eta arauhauste bakoitzari dagokion zigorra zehaztu dira zehatzmehatz. Puntu hori oso garrantzitsua da eta bertan desadostasuna sortu da bi parteren artean; batetik, babes judiziala merezi eta behar duten ondasun juridikoen tutoretza penaletik eratorriko betebeharrak daude eta, bestetik, beharizanprintzipioari zor zaion errespetua, horri dagozkion betebeharrak ordezkatzaileekin eta gutxieneko esku hartzearen ondorioekin. Bestalde, 1995eko Kodea egiteko legegileek egin duten kodifikatzeahalegina oso handia izan da, murriztu egin dituzteeta lege penal bereziak, hau da, murriztu egin dira Kodetik aparte dauden delitu eta zigorrak. Horiek lehen ugariagoak ziren baina, orain, ordea, Kode Penaletik aparte dauden esparruak honako hauek baino ez dira: hauteskundeak, kontrabandoa, aldetakontrola, aireko nabigazioa, eta, nola ez, militarren Kode Penala.

1. Arauhauste penal larriak eta ez hain larriak

Larriak eta ez hain larriak diren arauhausteak era askotan sailkatu daitezke, baina sailkapenik hedatuena subjektu pasiboaren arabera egiten dena da. Horrela, bada,

72. Sei hilabete zigor arinentzat; bi urte gehienez ere hamabi hilabeteko zigorrentzat eta arduragabekeriako delituertarako ezarritakoentzat; hiru urte gainontzeko zigor ez hain larrientzat eta bost zigor larrientzat (136,2-2. atala).

73. C. CARMONA SALGADO, J. J. GONZALEZ RUS, L. MORILLA CUEVA, M. POLAINO NAVARRETE, G. PORTILLA CONTRERAS, *Curso de Derecho Penal Español. Parte Especial*, I, Madril, 1996; C. HERRERO HERRERO, *Introducción...*, aip., 183. or. eta ondorengoak; F. MUÑOZ CONDE, *Derecho Penal. Parte Especial*, 11. arg., Valentzia, 1996; J. J. QUERALT JIMENEZ, *Derecho Penal Español. Parte Especial*, 3. arg., Bartzelona, 1996; G. QUINTERO OLIVARES, J. M. VALLE MUNIZ, F. MORALES PRATS, J. M. PRATS CANUT, J. M. TAMARIT SUMALLA, R. GARCIA ALBERO, *Comentarios a la Parte Especial del Derecho Penal*, Irunea, 1996; L. RODRIGUEZ RAMOS, M. A. COBOS GOMEZ DE LINARES, J. M. SANCHEZ TOMAS, *Derecho Penal. Parte Especial*, Madril, 1996; T. S. VIVES ANTON, J. BOIX REIG, E. ORTS BERENGUER, J. C. CARBONELL MATEU, J. L. GONZALEZ CUSSAC, *Derecho Penal. Parte Especial*, 2. arg., Valentzia, 1996.

sailpena honako hau da: pertsonen kontra egindakoak, gizaki bakanen kontrakoak, gizartearen kontrakoak eta estatuaren kontra egindakoak. Gaur egun bada sailkapen horretan sartzen den beste puntu bat, orain arte estatuaren kontrako delituen barnean egondakoa, nazioarteko elkartearen⁷⁴ kontra egindako delituak, hain zuzen ere.

A) Pertsonen kontrako delituak

Pertsonen aurkako delituen artean⁷⁵ lehenengoak, garrantzitsuenak dira eta, bizitzaren kontrako delituak dira; bai gizaki independenteen bizitzaren kontrakoak, bai umetokibarneko bizitzaren kontrakoak.

a) Kode zaharraren arabera *gizaki independentearen bizitzaren kontra* egindako delituak gizahilketa, parrizidioa, hilketa eta buruhilketan edo haur-hilketan eragile edo laguntzaile izatea ziran. Egungo Kodean, ordea, *gizahilketa eta hilketa* baino ez dira agertzen eta horietan ere zenbait aldaketa egin dira. Gizahilketa da oinarrizko delitua⁷⁶ eta parrizidioa⁷⁷ eta haurhilketa ez dira agertzen. Hilketaren kasuan, nahiz eta delitu bezala agertzen den Kode berrian, ez dira hilketaren barnean sartzen aldez aurretik pentsatutako heriotzak edo uholde, sute, pozioen edo ez tandem ondorioz eragindakoak; orain, hilketa izateko heriotza ezezki, azpikeria, prezioa, saria edo promesa, edo basakeria egon behar da⁷⁸.

Buruhilketan eragile edo laguntzaile (143. artikulua) izateari dagokionez, ez da aldaketa handirik egon, baina oraingoan aipamen zehatza agin da *eutanasiarako*: norbaiten heriotza eragitera bideratutako ekintza, baina horretarako eskabide zehatza, serioa eta errakuntzarik gabea egin behar izan du oso gaixotasun larria duen gaixoak edo jasanezina edo betiko den gaitz larria duen horrek (143,4. artikulua)⁷⁹. Horrela, bada, Kode berrian buruhiltzaile eutanasiakoari laguntza ematea ezezki, eutanasia zuzen aktiboa ere zigortzen da, baina, ordea, ez da zigortzen eutanasia pasiboa (bizitza era artifizialean luzatzea), ez eta ezezki aktiboa ere (minaren kontrako tratamenduak; ez dute zuzenean heriotza sortzen, baina laburtu egiten dute bizitza), gixoaren nahiaren kontra egiten den kasua ezik⁸⁰.

b) *Umetokibarneko gizakiaren bizitza* babesteko *abortuaren delitua* zehaztu da (144-146). Kasu horretan ere sinplifikatu egin dira arauak eta abortuaren deli-

74. Ikus, C. HERRERO HERRERO, *Introducción...*, aip., Madril, 1996, 185. or eta ondorengoak.

75. A. SERRANO GOMEZ, *Derecho Penal. Parte Especial I. Delitos contra las personas*, Madril, 1996.

76. L. RUEDA GARCIA, "Examen del título I del libro II", *La Ley*, 4019. zk., 1996.

77. Ezkonkidehilketari buruz ikus, RAMOS TAPIA, "El homicidio del cónyuge", *Actualidad Penal*, 1996-1-8/14

78. Irainduaren mina nahita edo jazanezineraro handitzen denean (139-3. atala).

79. I. MUÑAGORRI, "La regulación de la eutanasia en el nuevo Código Penal de 1995", *Jueces para la democracia*, 25, 1996; E. DIAZ ARANDA, *Dogmática del suicidio y homicidio consentido*, MADRIL, 1996.

80. D. LOPEZ GARRIDO, M. GARCIA ARAN, *El Código Penal...*, aip., 89. or.; J. M. VALLE MUÑIZ, "Prólogo", aip., 18. or..

tua hiru kasu hauetarako zehaztu da: baimenik gabeko abortua (144. artikulua), baimenarekin egindako abortua edo norberak egindako abortua (145. artikulua) eta profesionalen zabarkeria edo arduragabekariagatik eragindako abortuak (146. artikulua).

Legeproiektua bideratzen zeuden artean hainbat eztabaida egon zen arren lau garren kasua deiturikoa delaeta (egoera sozioekonomiko delaeta egindako abortua), ez da aldatzeko egon onartuta zeuden abortuen kasuetan; abortukasu horiek Kode zaharreko 417 bis artikuluan zehaztu ziren eta oraindik ere indarrean daude. Gauzak horrela, abortua ez da zigorgarria mediku batek edo berak zuzenduta egiten bada kreditazioa duen osasunzentro publiko edo pribatuan, haurdun dagoen emakumearen baimenarekin egiten bada eta abortua egiteko arrazoia honako hau bada:

– *medikuaren aholkua*: haurdun dagoenaren bizitza edo osasun fisikoa edo psikikoa arrisku larriak dagolako;

– *aholku etikoa*: haurdunaldia bortxaketaren ondorioa denean; abortua lehenengo hamabi asteetan egin behar da;

– *aholku eugenesikoa*: fetuak tara fisikoak edo psikikoak izango dituen ustea dutenean eta abortua haurdunaldiaren lehenengo hogeita bi asteetan egiten denean.

c) Aurreko artikulutik gehiegi urrundu barik, Kode honetan guztiz berriak diren delituak aipatuko ditugu: *fetuari egindako lesioak* eta manipulazio genetikoa.

Kode berrian babestu egin dira fetuaren osasuna eta osotasun fisikoa (157 eta 158. artikulua); ekintza mingarri edo arduragabekoaren eraginez fetuaren lesioak sortu badira edo gaixotasuna sortu bada eta gaixotasun hori delaeta fetuaren garapena normala ez bada edo fetuari tara fisiko edo psikiko larriak eragin bazaizkio, ekintza hori zigorgarria izango da (ekintza hori haurdun dagoen emakumearen arduragabekeria ez den kasuetan).

*Manipulazio genetikoa*ri buruzko delituak honako hauek dira (159-162. artikulua)⁸¹:

– genotipoa aldatzen duen *manipulazio genetikoa* (mingarria edo arduragabea),

– *ingenierutza genetikoa erabiltzea* arma biologikoak edo gizakia suntsi dezaketen armak egiteko,

– *gizaobulua legezkontra fekundatzea*,

– *klonazioak* edo/eta *helburutzat errazaren haustapena duten prozedurak*,

– *emakumearen baimenik gabe egindako lagunduriko ugalketa*.

d) 1989an aldaketa sakonak egin ziren arren Kodean lesioen arloan, Kode berrian ere aldatu egin dira zenbait gauza. Kode berriaren arabera, *lesioak* hauek dira⁸²:

81. J. L. DE LA CUESTA ARZAMENDI, "Los llamdos delitos relativos a la manipulación genética en el nuevo Código Penal de 1995", *Revista de Derecho y Genoma Humano*, 5. zk., 1996.

82. Kritika eginez, E. GIMBERNAT ORDEIG, "Prólogo", *aip.*, XXIII. or..

– *Ebaketak* eta antzeko jarrerak: organu bat edo gorputzadar nagusi bat edo nagusi ez den bat galtzea, sentimen bat galtzea, inpotentzia, antzutasuna, deformazioa, gaixotasun somatiko edo psikiko larria (149 eta 150. artikulua);

– lesioak; hau da, gorputzaren osotasunean edo osasun fisiko edo psikikoari sortutako kalteak eta kalte horiek konpontzeko ikuspuntu objetibotik medikuak ikusteko beharraz gain, tratamendu medikua edo kirurgia behar denean (lesio nola doan jakiteko mediak egindako kontrola ez da tratamendutzat hartuko) (147,1. artikulua). Lesioak honakoak izan daitezke:

lesio ez hain larriak, erabilitako baliabideen eta emaitzen araberakoak (147,2. artikulua);

lesio larriak (147,1. artikulua);

lesio oso larriak (148. artikulua), emaitzaren edo sortutako arriskuaren, erabilitako baliabide arriskutsuaren edo basakeriaren, adinaren (12 urteraino) edo biktimaren ezintasunaren araberakoak.

Era berean, zigorgarriak dira arduragabekeria larriagatik sortutako lesioak eta era berezian aurreikusi dira motordun ibilgailuekin, ziklomotorrekin edo suarmekin egindako ekintzak, profesionalen arduragabekeriarengatik sortutakoak, senideei emandako egiteko tratu txarrak (153. artikulua) eta iskanbiletan parte hartzea (154. artikulua).

III. tituluaren bukaeran adostasunari buruzko arauak daude (155 eta 156. artikulua). Horien arabera onespena beti da salbueslea organoen transpalteen kasuetan, antzuteetan eta sexua aldatzeko kirurgian. Beste kasu batzuetan zigorra gradu bat edo bi gutxitzeko arrazoia izan daiteke baldin eta irainduak horretarako adostasun zehatza eta onargarria eman badu bere borondatez eta askatasun osoarekin. Urritasun psikikoa dutenei egindako antzuteak beste puntu batean zehaztu dira (156 II. artikulua).

e) Ondoren askatasunaren kontrako delituak:

– *atxilotzea eta bahiketa* (baldintzapeko atxilotzea); ohiko kasuetaz aparte beste batzuk ere zehaztu dira, hala nola, adin txikikoak edo ezinduak lapurtzea, funtzionarioak baitzea eta atxilotua edo bahitua desagertzea (163168. artikulua)⁸³

– *mehatxuak* (169171): mehatxuak delituzko gaitzak edo ez delituzkoak izan daitezke eta baldintzadunak edo baldintzagabeak izan daitezke eta, bestalde, gaitz ez deliktibodunak baina baldintzadunak izan daitezke (txantaia) (171,2 eta 3. artikulua)⁸⁴

83. J. BANACLOCHE PALAO, *La libertad personal y sus limitaciones. Detenciones y retenciones en el Derecho español*, Madril, 1996.

84. Beste bati kantitate edo dirusaria eskatzea haren fama, sinesgarritasun edo interesei kalte egin diezaoketen ekintzak esan egingo diren edo zabaldu egingo diren mehatxua eginenez, ekintza horiek haren bizitza pribatuari edo ezagunak ez diren senidei buruzkoak direnean. Txantaia ere izan daiteke, delitu bat egin izana esan edo salatuko denaren mehatxupean.

– *hertsapena* (172): baimenik izan gabe eta bortxakeria erabiliz norbaiti legez onartuta dagoena egiten ez uztea edo egin nahi ez duena, bidezkoa izan edo ez, egitera behartzea; era zehatzean aurreikusi dira oinarrizko eskubide bat erabiltzen uzten ez duten hertsapenak (163. artikulua eta ondorengoak).

f) Guztiz da berria VII. titulua, *tortura eta osotasun moralaren kontrako delituei* buruzkoa (173177. artikulua).

Artikulu horietan torturari dagozkion zigorrak zehaztu dira baina, hala ere, Kode berrian erabili den torturaren definizioa eta nazioarteko definizio ez datoz guztiz bat. Era berean, artikulu horietan funtzionarioek edo funtzionario ez direnek emandako tratu degradatzaileak eta funtzionarioek pertsonen osotasun moralaren kontra dituzten jarrera guztiak ere zigortzen dira. Ekintza horiek guztiak (eta zigor berarekin) agintari edo funtzionarioei ere lepora diezazkieke, beren egin-kizunak ez betetzeagatik beste batzuek ekintza horiek egin badituzte.

d) *Delitu sexualen* arloan ere aldaketa asko egin idra⁸⁵.

Arau berrietan hiru oinarrizko artikulutan banatu dira askatasun sexualaren kontrako jarrerak⁸⁶:

– *eraso sexualak*, indarkeriarekin edo larderiarekin; astungarria da haragizko sartzeta eta zerbait sartzeta eta kasu horiek are astungarriagoak izango dira honakoetan: indarkeria eta larderia oso degradatzaileak edo iraingarriak direnean; ekintza hiru edo gehiagok taldea osatuz egin dutenean; biktima oso ahula denean; senitartekoa erasotzen denean; eta eraso egiteko erabili diren baliabideak oso arriskutsuak direan, heriotza edo lesio larriak sortzeko modukoak direnean;

– *baimenik gabeko abusu sexualak* (indarkeriarik edo larderiarik gabe) (181183. artikulua)⁸⁷, edo nahiz eta baimena emon biktima egoera txarragoan dagoenean edo iruzur egin diotenean (abusua hamabi urtetik gorakoari eta hamasei urtetik berakoari egin diotenean); ekintza horiek are larriagoak izango dira abusuaren haragizko sartzeta edo zerbait sartzen denean edo sartzeta ahotik edo uzkitik egiten denean (zigorra gogorragoa da biktima senitartekoa edo oso ahula denean);

– *jazarpen sexualak* lanean, irakaskuntzan eta biktima egoera txarragoan dagoen kasuetan; hau da, mesede sexula eskatu eta biktimak ezezkoa emanez gero bere itxaropenak zapuztu egin daitezkeen kasuetan.

Ez dira aldatu exhibizionismo eta probokazio sexualari buruzko delituak; hau da, adin txikikoen edo ezinduen aurrean exhibizio lizunak egitea edo adin txi-

85. J. M. VALLE MUÑIZ, “Prólogo”, *aip.*, 19. or.. Kritika eginez, E. GIMBERNAT ORDEIG, “Prólogo”, *aip.*, XXIII. or..

86. Eraso eta abusu sexuak galdu egin dute zuten izaera erdipribatua eta jazarri egin daitezke (jazarpenak bezalaxe) baina ez kaltetuaren salaketa dagoenean bakarrik, ministerio fiskalak ere jar deza ke kereila (191. atala)

87. Legearen arabera abusuak baimenik gabekoak izateko biktima hamabi urtetik berakoa edo zentzurik ez duten pertsona edo buruko asaldura dutena izan behar da. Kasu horietan ezartzen den zigorra abusu sexualeri dagokiena baino askoz ere handiagoa da.

kikoei edo ezinduei pornografiamateriala saltzea, erakustea edo haien artean zabaltzea (185 eta 186. artikulua).

Beste norbaiten prostituzioa sustatzea edo esplotatzea; prostituzioaren alde egitea ere arauhauste penala da. Arauhauste horien artean adin txikikoen edo ezinduen prostituzioa edo esplotaziosexula, gogoz kontrako prostituzioa eta zigorgarria den prostituzioa daude.

h) *Laguntza ez emateari* buruzko delituak II. liburuko IX. tituluaren agertzen dira (195 eta 196. artikulua). Oinarrian Kode berrian zehaztutakoa eta Kode zaharreko 489 ter artikuluko berdina da, aldatzen den bakarra istripuetan laguntza ez emateari buruzko aipamena da. 195.3. artikuluan desberdindu egin da istripua laguntza eman ez duenak nahi gabe sortu duenean eta istripua arduragabekeriagatik sortu denean⁸⁸, eta kasu batean eta bestean ezarri beharreko zigorrak oso desberdinak dira⁸⁹. 196. artikuluan zehaztutakoaren arabera leporatzea larriagoa izango da laguntza emateko betebeharra duen profesionalak laguntzarik ematen ez duenean edo osasunzerbitzuak bertan behera utzita alde egin eta horren ondorioz osasunerako arrisku larriak sortzen direnean.

i) *Intimitatearen, pribatutasunaren eta norberen irudiaren* babesari buruzko araudia ez zen batere egokia Kode zaharrean baina oraingo Kodean xedapen berriak egin dira eta horietan sekretuak aurkitu eta jakinarazteari buruzko arauak zehaztu dira (197. artikulua eta ondorengoak)⁹⁰ eta baita bizilekua edo egoitza borxatzeari buruzkoak ere (197204. artikulua)⁹¹.

Sekretuen arloko delituen artean, eta orohar alde batekoak eskatuta zigorgarriak direnak (201. artikulua), laneko sekretuak eta sekretu profesionalak daude (199. artikulua)⁹² baina ez enpresasekretuak (278. artikulua eta ondorengoak) eta Kode berrian kontuan izan dira gaur egun geroa eta konplexuagoak diren teknikekin intimitatearen eta norberen irudiaren kontra egin daitezkeen deli-

88. Istripuen kasurako araudian bitxia da 11 b) ataleko edukia, horren arabera delituaren zigorra emaitzaren (heriotza, lesioak) araberakoa izan behar da eta. E. GIMBERNAT, "Protocolo", *aip.*, 16. or..

89. Istripua nahi gabe sortu bada ezegitearen zigorra 6 hilabetetik urte batera arteko gartzela eta sei hilabetetik hamabi hilabetera arteko isuna da. Istripua arduragabekeriarengatik izan bada, sei hilabetetik bi urtera arteko gartzela eta sei hilabetetik hogeita lau hilabetera arteko isuna.

90. A. JORGE BARREIRO, "El delito de revelación de secretos (profesionales y laborales)", *La Ley*, 4038. zk., 1996; VALLINA y ESCUDERO MORATALLA, "La cláusula de secretos profesionales en el Código Penal de 1995", *Revista General de Derecho*, 615. zk., 1995; J. M. MARTINEZ PEREDA RODRIGUEZ, "La protección penal del secreto médico en el Derecho español", *Actualidad Penal*, 1996-3-4/10. R. REBOLLO VARGAS, *La revelación de secretos e informaciones por funcionarios públicos*, Bartzelona, 1996.

91. J. M. VALLE MUÑIZ, "Prólogo", *aip.*, 19. or.. Ikus ere, J. J. LOPEZ ORTEGA, "La protección de la intimidad en el nuevo Código Penal", *Cuadernos Jurídicos*, 42. zk., 1996; A. PEREZ VALLEJO, "La informática y el Derecho Penal", *Actualidad Informática Aranzadi*, apirila, 1996; M. MARCHENA GOMEZ, "Intimidad e informática: La protección jurisdiccional del Habeas Data", *Boletín de Información del Ministerio de Justicia*, 1996-2-15.

92. A. JORGE BARREIRO, "El delito de revelación de secretos (profesionales y laborales)", *La Ley*, 1996ko maiatzaren 17koa, 1. or. eta ondorengoak.

tuak, teknika horien bidez komunikazioak atzeman eta irudiak, soinua edo datuak grabatu edo erreproduzitu egin daitezke eta. Aipamen berezia merezi du erregistroa dauden isilpeko datuen babesak, eta, betez ere, datu horiek norberen pentsakera, sinismen, erlijio, osasun, sorburu errazial edo izaera sexualari buruzkoak badaira edo biktima adin txikikoa edo ezindua bada.

Etxea edo egoitza bortxatzeari buruzko arloan kontuan izan da ohiko ikuspuntua, hau da, norberena ez den etxean sartzea edo bertan bizi denaren borondatearen kontra etxean egotea. Baina ikuspuntu horretaz gain, Kode berrian puntu berri bat sartu da: pertsona juridikoen etxeetan edo jendearentzat zabalik dauden tokietan indarrez sartzea (203. artikulua); hau da: indarrez sartzea jabearen borondatearen kontra pertsona juridiko publiko edo pribatuaren etxean, laneko bulegoan, merkataritzako establezimenduan edo jendearentzat zabalik dagoen tokian itxita dagoen ordutegian⁹³. Tokiotan jabearen borondatearen kontra egoitea delitua izango da indarkeria edo larderia erabili bada; indarkeriarik edo larderiarik erabili ez bada, hutsegitea baino ez da.

j) *Ohorearen kontra egindako delituei* buruzko arloan definizio berria egin zaie irainei (205216. artikulua). Orain arte irainen definizio legala hau zen: duintasunaren kontra egindako ekintza edo esamoldea, horren bidez ospea kaltetuz edo estimuari erasotuz. Egungo Kodean iraina delitu izateko herrikontzeptuan larria izan behar da izaera, egoera eta ondorioak kontuan izanda; izaera hori duten irainak gezurra direla jakinda edo egia gutziespen ausartegiarekin egindakoak dira.

k) *Pertsonen kontra egindako delituekin bukatzeko jabeagoaren kontra egindako delituak* aipatuko ditugu.

Kode berrian norbanakoaren ondarea babestea alor sozioekonomia babestarekin elkarlotu da. Aukera hori oso kritikagarria da sistemaren ikuspuntutik baina, hala ere, txalagarria da alor sozioekonomikoa zigorren bidez babesten den ondare juridikoen artean sartzea.

Ondarearen kontrako delituak honako hauek dira.

– *ebasketak*;

– *indarkeriaren bidez edo pertsonak beldurtuz egindako lapurretak*

– *lapurreta gauzengan indarkeria erabikiz*

– *estorzioa*, hau da, dirua irabazteko helburuarekin beste norbait bere kalterako edo beste norbaiten kalterako den ekintza edo negozio juridikoa egitera edo isilpean gordetzera behartu, horretarako indarkeria edo larderia erabiliz (243. artikulua)

– *ibilgailuen eta ziklomotorren erabilera lapurtzea edo ebatea*

93. Indarkeri edo larderia erabiltzen denean zigorrak astunagoak izango dira nahiz eta merkataritzako establezimendua edo jendearentzako zabalik dagoen tokia zabalik egon (203,2. atala).

Bestalde, eta ordena publikoaren kontrako delituen artean, 558. atalean zigortu egiten da ordena larri hondatzen denean epaietan edo epaitegietan, agintarien edo batzordeen jardueretan, hautesleketan, bulego edo beste edonolako toki publikotan, ikastetxeetan, edo ekintza kultural edo kirolekintzetan.

– *usurpazioak*: ondasun higiezinak okupatzea edo erregeeskubide higiezinak usurpatzea edo mugak, elkarren ondoan dauden onibarren edo jabegoen mugak zehazteko dauden mugariak edo seinaleak aldatzea

- *iruzurrak*: iruzurrak, bidegabeko jabetzeak, fluidoan iruzurrak eta antzekoak
- *kalteak*.

Ondasunen kontra egindako delituetan⁹⁴ ere aldaketak egin dira:

Ez dira agertzen *gizahilketarekin, lesioekin...egindako lapurretaren* delitu konplexuak (242. artikulua) eta *ebasketaren* definizioan ez da aipatzen gauzenganako edo pertsonenganako indarkeria eza. Gauzak horrela, eta kontuan izanda 238. artikuluan zehaztu den zerrenda oso itxia dela, jabetza lortzeko (ebasketan) gauzenganako indarkeria erabiltzen denean zilegi izango da 234. artikulua eta ondorengoak erabiltzea. Izan ere, 238. artikuluan zehaztutako kasuetan gauzengan indarkeria erabiliz egindako lapurreta izateko honako baldintza hauek bete behar dira⁹⁵:

- eskalatzea;
- horma, sabaia edo zolua apurtzea edo atea edo leihoa apurtzea;
- lapurreta egin den tokian edo beste edonon armairuak, kutzak edo itxita edo zigiluz itxita dagoen edozein altzari apurtzea, edo horien sarraila apurtzea edo barruan dutena lapurtzeko asmoarekin Kodea lortzea;
- giltza faltsuak erabiltzea⁹⁶;
- alarma edo zaintzeko edozein sistema baliogabetzea.

Motordun “*ibilgailuen erabileraren lapurreta edo ebastea*”⁹⁷ aipatzen da Kodean; horrela, bada, 244. artikuluan ez dira sartzan erabileraren bidegabeko jabetzeak. Pertsonenganako indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurretak ere ez dira era zuzenean zigortzen 244 artikuluan, kasu horietan 242. artikulua (indarkeriarekin edo larderiarekin egindako lapurretak) erabili behar da.

Usurpazioen kasuan zabaldu egin da esparrua eta oraingo Kodean usurpazioa da higiezinak, eraikinak edo etxeak baimenik gabe okupatzea, indarkeriarik edo larderiarik erabili ez den arren (245,2. artikulua). Hori da, hain zuzen ere, hutsik dauden etxeen okupazioetan gertatzen dena.

94. L. RODRIGUEZ RAMOS, “Los nuevos delitos de robo”, *La Ley*, 3996. zk., 1996.

95. Indarkeria, 237. atalaren arabera, norberenak ez diren eta jabetza norbereganatu egin den gauza higigarriak dauden tokira sartzeko erabili behar da. Indarkeria erabili gabe sartu den tokitik irtezeko indarkeria erabili bada, orduan, ez da gauzen lapurreta, ebasketa baizik.

96. Giltza faltsuak honakoak dira (239. atala): 1) gakordeak eta antzeko tresnak; 2) ugazabak galdu egin dituen edo arauhaustea den balibidearen bidez lortu diren bidezko giltzak; 3) bortxatutako sarraila irekitzeko ugazabak erabiltzen ez duen beste edozein baliabide. Horretaz gain 239. atalean zehaztu egin da atal horren ondorioetarako giltzat hartzen direla txartelak, bai magnetikoak, bai zulodunak, eta urrunetik irekitzeko erabiltzen diren mando edo tresnak.

97. Ziklomotorrak barne.

Legean hala zehaztu delako, *iruzurtzat*⁹⁸ hartzen dira iruzur informatikoak⁹⁹. Hau da, beste norbaiten kalterako eta baimenik gabe egin den ondasunen aldaketan ez zaionean inolako kantitaterik eman iruzur egin zaionari eta aldaketa hori informatikaren edo antzeko baliabideren baten bidez egindako manipulazioaren ondorioa denean (248,2. artikulua).

Bidegabeko jabetzei dagokienez, 254. artikuluean honako kasu hau ere zehaztu da: norbaitek errakuntza baten ondorioz zerbait (dirua edo gauza higigarria) eskuratzen du eta ondoren ez du bueltatu nahi. Argi dago zehaztasun hori banketxeak bezeroekin dituzten errakuntzetatik babesteko egin dela, nahiz eta beharbada gehiegixko izan horretarako zuzenbide penala erabiltzea.

Jariakorren iruzurren artean dago baimenik gabe eta jabearen kalterako telekomunikazioko terminalak (adb.: telefonoa) erabiltzea (256. artikulua).

Kalzedelitu bezala (50.000 PTAtik gorakoak) 264 II. artikuluan honakoak ere zehaztu dira: norbenak ez diren eta sarearen barnean dauden datuak, programak edo agiri elektronikoak edo informatikako euskarriak edo sistemak apurtzea, gauzaeztatzea edo kaltetzea. Bestalde, arduragabekeriarengatik sortutako kalteak delitu izango dira baldin eta arduragabekeria larria bada eta kaltearen zenbatekoa hamar milio peseta baino gehiago bada. Kasu horietan kaltea zigorgarria izateko derrigorrezkoa da kaltetuak edo legez bere ordezkaria denak (ministerio fiskalak adin txikikoen, ezinduen edo babesik ez dutenen kasuan) salaketa egitea (267. artikulua).

B) Gizartearen kontra egindako delituak

a) Gizartearen kontrako delituen artean *erlijiosentimenduen kontra egindakoak* daude, hala nola, kontzientzia askatasunaren kontrakoak (522 eta 523. artikulua), desohoreak eta eskarnioak (524. artikulua eta ondorengoak)¹⁰⁰, eta hildakoak errespetatzea (256. artikulua).

b) *Senitartekoen harremanen kontra egindako delituak*. Kode berriko II. liburuan izanburu berria egin da delitu horietarako, XII. titulua, hain zuzen ere (217233. artikulua).

Mota horretako delitu gehienak Kode zaharrean ere aipatu ziren: legezkontrako ezkontzak (bigamia, baliorik gabeko ezkontzak, baliorik gabeko ezkontzak baimentzea), ustezko erditzeak eta egoera zibila aldaketak (adin txikikoen salerosketa barne) eta sendiko eskubide eta eginkizunen kontra egindako delituak. Azken horien artean honako hauek daude: babeseginkizuna ez betetzea, adin txikikoak etxetik alde egitera bultzatzea, senitartekoa, adin txikikoa edo ezindua bertan behera uztea, adin txikikoak edo ezinduak eskean ibiltzeko erabiltzea.

98. E. BERMUDEZ OCHOA, "Estafas", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 2, 55. Or. eta ondorengoak.

99. D. LOPEZ GARRIDO, M. GARCIA ARAN, *El Código de 1995...*, aip., 134. or..

100. Bai erlijio bateko dogma, sinismen, errito edo ozpakizunena, bai inongo erlijioak ez direna edo sinismenik ez dutenena.

Azkenengo multzo horren barnean *banatu edo dibortziatu ondoren eman beharreko laguntzak ez ordaintzea* dago (277. artikulua). Laguntzak horiek emateko arrazoia denboraren iraupena da (bi hilabete jarraian edo ez jarriak diren lau hilabete) eta ez da beharrezkoa beharrian egoeran edo babesik gabe egotea.

c) *Alor sozioekonomikoaren kontra egindako delituak*¹⁰¹ gizartearen kontrako delituak dira eta, hala badagokie, estatuaren kontrakoak (ekonomia publikoaren alorraren kontrako arauhausteak direnean)¹⁰². Hala ere Kode Penalak XIII. tituluaren barnean, ondasunen kontrako delituekin batera, sartu ditu.

Norbanakoaren ondasunen kontrako delituen eta alor sozioekonomikoaren kontrako arteko nahaste diren bi delitu daude: *kaudimengabeziaren delitua* (257. artikulua eta ondorengoak)¹⁰³ aldaketa garrantzitsuek egin zaizkio delitu horri zuzenbide zibil eta merkataritzakoaren menpe egon ez dadin; horrela delituaren ondorioz sortutako erantzukizun zibila ekidiezina da (258. artikulua) eta hartze-kodunenganako onurak (259. artikulua) edo jokaera faltsuak zigorgarriak izango dira (261. art.) eta *lehiaketa eta enkante publikoetan salneurria aldatzearen delitua* (262. artikulua) (delitu horren edukia ere asko zabaldu da).

Edonola ere, Kode Penal berrian zehaztu diren arlo sozioekonomikoaren kontrako delituak III. tituluaren agertzen dira eta honako hauek dira:

– *jabego intelektualari buruzko delituak* (270-272. artikulua): erreproduzitzea, plagioa, literaturako, arteko edo zientziako lanak banatzea edo jakitera ematea dirua irabazteko asmoarekin, hirugarren baten kaltetarko eta eskubideen jabeen baimenik gabe; delitu mota horren barnean daude ere ordenadoreko programak babesteko erabili den dena delako tresna teknikoa kentzeko edo indargabetzeko helburu bakarrarekin, eta baimenik izan gabe, edozein motako baliabidea egitea, banatzea edo edukitzea¹⁰⁴;

– *jabetza industrialari buruzko delituak*, patenteak eta markak, irudiak, industriako ereduak eta jatorrizkoizendapenak babesteko (273-277. artikulua);

– *merkatuari eta kontsumitzaileei buruzko delituak* (278-286. artikulua)¹⁰⁵, hala nola: enpresako sekretuak haustea (278. artikulua), lehengaiak edo beharbeharrezko gaiak nork bere gain hartzea (281), *publizitadedelitua* (282. arti-

101. V. GIMENO SENDRA, “Los delitos económicos en el Nuevo Código Penal”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 249. zk., 1996; MORENO CANOVES y RUIZ MARCO, *Delitos socioeconómicos. Comentarios a los artículos 2623, 270 a 310 del nuevo Código Penal (Concertados y con jurisprudencia)*, Madril, 1996.

102. F. MUÑOZ CONDE, *Derecho Penal. Parte especial*, aip., 889. or. eta ondorengoak.

103. Ondasunak biltzea, porrota, zigorgarriak diren ordaintetako etetea edo lehian jartzea.

104. Edonola ere, delitu horren ezarpenarloan zabalegia da eta komenigarria litzateke helburuak komertzialak diren kasuetara murriztea.

105. Ikus, M. MARCHENA GOMEZ, “Selitos relativos contra el mercado y los consumidores”, *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 3, aip., 173. or. eta ondorengoak; A. DE VEGA RUIZ, *Los delitos contra el consumidor en el Código Penal de 1995*, Madril, 1996.

kulua)¹⁰⁶, aparatu automatikoekin neurtutako gaiak fakturatzekoan iruzur egitea (283. artikulua), *insider tradina*¹⁰⁷ eta gaien salneurria aldatzeko trikimailuak (283. artikulua): hau da, baloreen merkatuari buruzko informazio pribilegiatua erabiliz norik berarentzat edo beste norbaitentzat 75 milioko irabazia baino irabazi handiagoa lortzea edo antzeko galerak sortzea (285. artikulua),

– *zerbait ebastea berezko erabipen sozial edo kulturaletik* (289. art.),

– *errezetazio-delituak eta antzekoak* (298304. artikulua): irabazia lortzeko asmoarekin ondarearen kontrako edo alor sozioekonomikoaren kontrako delituren bat edo jabetzaren kontrako arauhausteren bat egin dutenen alde egitea, eta delitu larria den trafikotik lortutako ondasunak *zuritzea* (301. artikulua eta ondorengoak)¹⁰⁸; azken delitu hori arduragabekeria larriarengatik egiten denean zigorgarria izango da (301,3. artikulua),

– *sozietate-delitu* berriak (290297. artikulua)¹⁰⁹: ondareari buruzko gezurrezko datuak ematea, administrazio desleiala, gehiengoa izateagatik edo gezurrezko gehiengoa erabiliz gehiegikeriak egitea, baltzueskubideak erabiltzen ez uztea, ikuskapenak edo gainbegiraketak egiteko oztopoak jartzea, informazio pribilegiatua izateagatik gehiegikeriak egitea. Doktrinak gogor kritikatu du arautze penal hori, haren ustez jokaera zigorgarri horiek bazeudelako jasota merkataritzazuzenbidean eta, ordea, ahaztu egin dituztelako zuzenbide penal konparatuan ezagunak ziren hainbat delitu, hala nola, zenbait erabaki eta kontabilitate ez erregistratzea, batzarretarako deirik ez egitea, egoitza faltsua izatea...¹¹⁰.

Merkatuari eta kontsumitzailei eta baltzuei buruzko delituak ezin izango dira jazarri norbaitek hala eskatzen ez badu; salbuespena izango da delitu horiek interes orokorreki edo pertsona multzo bati eragiten dienean (287. artikulua).

106. 282. atalean honakoa zehaztu da: sei hilabetetik urtera bitarteko zigorra izango dute edo sei hilabetetik hemezortzi hilabetera bitarteko isuna fabrikatzaile edo saltzailearentzat, horrek eskaintzetan edo produktu edo zerbitzuen iragarkietan alegazio faltsuak edo horie buruzko gezurrezko izatera adierazten baditu eta horien bidez kontsumitzaileari kalte larria eta nabarmena sor diezaiokenean; zigor hori ez da beste delitu batzuegatik ezar daitezkeen zigoren kalterako izango.

107. D. LOPEZ GARRIDO, M. GARCIA ARAN, *El Código Penal de 1995...*, aip., 143. or..

108. F. SOTO NIETO, "El delito de blanqueo de dinero. Esquema de las disposiciones legales afectantes al blanqueo", *La Ley*, 4015. zk., 1996; J. ZARAGOZA AGUADO, "Recepción y blanqueo de capitales", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 4, aip., 449. or. eta ondorengoak.

109. P. FERNANDO CABANA, *Los delitos societarios*, Valentzia, 1996 Y "Los negocios de riesgo en el Código Penal de 1995. Estudios Penales y Criminológicos, XIX, Santiago, 1996, 165. or. eta ondorengoak; J. GARCIA DE ENTERRIA, *Los delitos societarios. Un enfoque mercantil*, 1996; *Delitos societarios en el Código Penal de 1995*, Madril, 1996; J. M. MARTINEZPEREDA RODRIGUEZ, "Los delitos societarios", "El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales", 4, aip., 349. or. eta ondorengoak; L. RODRIGUEZ RAMOS, "Los nuevos delitos pseudosocietarios", *Bol. del Ilre. Colegio de Abogados de Madrid*, 1. zk., hirugarren aldia, 1996, 73. or. eta ondorengoak; ZENBAIT, *Delitos societarios en el Código Penal de 1995*; Bufete Hermosilla, Madril, 1996.

110. E. RUIZ VADILLO, "Prólogo", aip., 17. or..

XIII. titulutik aparte ere badaude zehaztuta alor sozioekonomikoari buruzko delituak. Horren eredu dira, hain zuzen ere, *ogasun publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontra egindako delituak* (305310. artikulua)¹¹¹. Delituok elkarlotuago daude alor ekonomiko publikoarekin eta honako hauek dira:

– *Gizarte Segurantzari egindako iruzurra*; iruzurra hamabost milio baino gehiagokoa denean

– *Zergairuzurra* (hamabost miliotik gorakoa) estatuko ogasunari, aldundikoari, tokiantokikoari edo Europako Batasunekoari (kasu horretan 50.000 ecutik gorakoa denean)

– bidegabeko *dirulaguntzen gozamena* (hamar miliotik gorakoak), Europako Batasuneko aurrekontu orokorretatik edo batasunak administratzen dituen beste aurrekontu batzuetatik bidegabeko diruak lortzea (50.000 ecutik gorakoa)

– *delitu kontablea*: merkataritzakontabilitateari buruzko zergei, liburuei edo erregistro ofizialei buruzko ezbetetze larriak.

Era berean, alor sozioekonomikoaren kontrako delituen artean *langileen eskubideen kontrako delituak* daude (311319. artikulua)¹¹²:

– *lanbaldintzak legezkantpo ezartzea*,

– *eskulanaren legezkantpoko trafikoa* (lanbaimenik ez duten atzerritarrei lana ematea edo lanbaldintzak guztiz txarrak izatea ere delitu horien artean daude),

– *legezkantpoko erreklutazioa*,

– *ezkutuko inmigrazioa, emigrazioa iruzur eginda ezartzea edo bultzatzea*,

– *lanean diskriminazio larria egitea*,

111. E. BACIGALUPO ZAPATER, "El nuevo delito fidcal". *Actualidad Penal*, 1995-12-4/10; J. DELGADO GARCIA, "De los delitos contra la hacienda pública y contra la seguridad social", *La Ley*, 4025. zk., 1996; M. C. GOMEZ RIVERO, *El fraude de subvenciones*, Valentzia, 1996; J. M. HERRE-RO DE EGAÑA ESPINOSA DE LOS MONTEROS, "Estudio sobre el delito fiscal", *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 289. zk., 1996; M. LAMELA FERNANDEZ, "Los delitos contra la Hacienda Pública y contra la Seguridad Social", *La Ley*, 4008. zk., 1996; C. MARTINEZ-BUJAN PEREZ, *Los delitos contra la Hacienda Pública y la Seguridad Social. Estudio de las modificaciones introducidas por la L.O. 6/95*, Madril, 1996; C. MUÑOZ BAÑOS, *Infracciones tributarias y delitos contra la Hacienda Pública*, 1996; J. M. PARETS PLANES, "Delito fiscal", *Cuadernos Jurídicos*, 37, 1996; M. A. RANCAÑO MARTIN, *El delito de defraudación tributaria*, 1996; J. TIRADO ESTRADA, "El concepto de regulación tributaria como causa de exención de la responsabilidad penal en el delito fiscal", *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 248. zk., 1996; R. DE VICENTE MARTINEZ, *Los delitos contra la Seguridad Social en el Código Penal de la democracia*, Madril, 1996; M. ZURITA, "Los delitos contra las Haciendas públicas y la Seguridad Social", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 4, *aip.*, 383. or. eta ondorengoak.

112. M. J. DOLZ LAGO, *Las imprudencias punibles en la construcción desde el arquitecto al albañil. Estudio jurisprudencial (adaptado al Código Penal de 1995) y la ley de prevención de riesgos laborales*, Granada, 1996; J. FERNANDEZ DOMINGUEZ, "De los delitos contra los derechos de los trabajadores", *La Ley*, 4031. zk., 1996; J. A. SAINZ RUIZ, "Los delitos contra los derechos de los trabajadores", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 3, *aip.*, 227. or. eta ondorengoak.

– *astasun sindikalerako edo greba egiteko askatasunaren eskubidea oztopatzea edo mugatzea,*

– *greba egitera hertsatzea,*

– *arriskudelituak, laneko segurtasunari edo higienerari buruzko neurriak hautsi egin direnean (mingarriak edo arduragabeak).*

d) *Lurraldeantolamenduari buruzko eta ondare historikoa eta ingurugiroa babesteari buruzko delituak* (319340. artikulua)¹¹³ Kode Penaleko II. liburuko XVI. titulu berrian daude. Zati hori ia osorik berria da, 325. artikulua da, ingurugiroa babesteari buruzkoa, aurreko Kodetik gutxien aldatu dena (aurreko Kodean 347 bis artikulua zen). Alor horretan honako delitu hauek zigortzen dira:

– *hirigintzadelitua*, hau da, zenbait lurzorutan baimenik gabe eraikitzea edo hirigarriak ez diren lurzoruetan ezin baimendu daitekeen eraikuntza egitea,

– era berezian babestuta dauden eraikuntzak eraitea edo eraikuntzei aldaketa garrantzitsuak egitea eta *ondare historikoaren kontrako delituak*; arduragabeak komisio zigorgarria ezar daiteke kalteak sortzen badira (50.000 PTAtik gorakoak) artxiboan, erroldan, museoan, liburutegian, ikastetxean, zientziabulegoan, antzeko erakundeetan edo balio artistikoa, historikoa kulturala, zientziakoa edo monumentalak duten ondasunengan edo aztarnategi arkeologikoan (324. artikulua),

– *baliabide naturalen edo ingurugiroaren kontrako delituak* bi kapitulutan banatu dira Kode berrian:

. lehenengo kapituluan (III. kapituluan) honakoei buruzko ekintzak zehaztu dira: *ingurugirokutsadurari buruzko ekintza mingarri edo arduragabeak, sustantzia toxiko edo arriskutsuetarako legezkantopoko biltegi edo zabortegeiak jarzea eta inguru naturalei egindako kalteak eta*

. bigarrenean (IV. kapituluan) *fauna eta flora babesteari buruzkoak.*

Titulu horretan zehaztutako delitu gehienek administrazioaren menpekotasun handia dute eta funtzionarioen eskuhartzeek eragin handia izan dezake delitu horiek onartzerakoan. Gauzak horrela, eta arlo horri dagokionez, 320, 322 eta 329. arti-

113. A. CABANILLAS SANCHEZ, *La reparación de daños al medio ambiente*, 1996; C. CONDE-PUMPIDO TOURON, "La tutela del medio ambiente. Análisis de la novedades más relevantes", *La Ley*, 4025. zk., 1996; C. LOPEZ-CERON, "Delitos contra los recursos naturales, el medio ambiente, la flora y la fauna", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 5, aip., 587. or. eta ondorengoak; C. J. LORENTE AZNAR, *Empresa, derecho y Medio ambiente. La responsabilidad empresarial por daños al medio ambiente*, 1996; F. MORALES PRATS, "Delito ecológico y modelo ambiental", *Cuadernos Jurídicos*, 36. zk., 1995; J. J. PREZ DE GREGORIO, "Los delitos contra el medio ambiente", *La Ley*, 3981. zk., 1996; G. RUIZ RICO, *La protección del medio en el ordenamiento jurídico español*, Jaen, 1996; J. A. DE VEGA RUIZ, *Delitos contra el medio ambiente, ordenación del territorio, patrimonio histórico, flora y fauna en el Código Penal de 1995*, Madril, 1996; A. VERCHER NOGUERA, "Delitos contra la ordenación del territorio", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 5, aip., 529. or. eta ondorengoak; A. VERCHER NOGUERA, "Delitos contra el patrimonio histórico", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 5, aip., 557. or. eta ondorengoak

kuluetan funtzionarioen prebarikazioak zehaztu dira: eraikuntzako edo erausketa edo era berezian babestuta dauden eraikuntzen aldaketetarako proiektuetan aldeko informazioa ematea, argi eta garbi legezkontrakoak diren lizentziak ematea, horien aldeko botua edo erabakia ematea bai norbere kabuz, bai kide anitzeko kide legez, beti ere, egindakoa legezkontrako delatu dela jakinda egiten bada. Ingurugiroaren kontrako delituen arloan jokera horiek eta ikuskapenak egiterakoan industriaren edo jarduera kutsakorren funtzionamendua arautzeari buruzko izaera orokorreko legeak edo arauen xedapenak hausten ari direla ikusi eta isilpean gordetzen duten agintari edo funtzionarioen jokaerak parekoak dira.

Nahiz eta *basosuteek* (352355. artikulua) ingurugiroaren babeserako garrantzia handia izan, ez dira arlo horretako delituen artean sartu, segurtasun kolektiboaren kontrako delituen artean sartu dira. Ingurugiroaren kontrako delituen artean ez dira sartu *energia nuklearrari eta radioaktibitateari buruzko delituak* (341. artikulua eta ondorengoak), ez eta horiekin lotura handia duten beste *arriskudelitu* batzuk ere, hala nola, gizakien edo ingurugiroaren osotasunerako, osasunerako eta bizitzarako arriskutsuak diren objektu, sustantzia edo organismoak fabrikatzea, manipulatzeko, garraiatzea...edo horiekin zerikusirik duten beste jarduera batzuk egitea ere (348350. artikulua).

e) Goian aipatutako delitu horiek, eta hondamenak ere, XVI. tituluaren hasieran dauden *arrisku katastrofikodun delituen* artean daude, hain zuzen ere, *segurtasun kolektiboaren aurkako delituen* artean.

Horien ondoren, honako hauek aipatu dira: *sute* motak (351. artikulua eta ondorengoak: oinarrizko sumota, basosuteak, baso ez diren tokietako suteak, norberen jabetzako ondasunek jasandako suteak), osasun publikoaren kontrako delituak (359378. artikulua) eta trafikoen kontra egindako delituak (379385. artikulua).

Osasun publikoaren kontra egindako delituen artean honako arloak zehaztu dira, besteak beste: legezkanpoko produktu kaltegarriak edo arriskutsuak egitea edo merkaturatzea (359 eta 360. artikulua), sendagaiak egitea eta saltzea (361362. artikulua), kaltegarriak diren elikagaiak edo produktuak saltzea (363. artikulua), gizakien kontsumorako diren elikagaiak eta haragianimaliak aizuntzea, animalia horiek hiltzea eta horien haragia edo bestelako gaiak jendaurrean saltzea (364. artikulua) eta elikagaiak eta edateko ura kutsatzea (365. artikulua)¹¹⁴.

Drogei eta aurrendariei buruzko delituak ere osasun publikoaren kontrako delituak dira Kode berrian¹¹⁵.

Arlo horretan zigortzen dira droga toxikoak, estupefazianteak edo psikotropikoak landatzea, egitea edo legezkontrako kontsumoa bultzatzea edo helburu hori lortzeko nahiarekin droga horiek edukitzea. Horrelakoak zigortzerakoan astungarria

114. A. DOVAL PAIS, *Fraudes alimentarios. Elementos esenciales*, 1996.

115. M. A. ZAMORA Y VAZQUEZ ALBERT, "Tráfico de sustancias psicotrópicas, drogas tóxicas y estupeficientes", *Cuadernos Jurídicos*, 42, 1996; eta L. REY HIUDOBRO, "LA nueva regulación de los delitos de tráfico de drogas", *La Ley*, 3988. zk., 1996.

da drogak hemezortzi urtetik berakoei, minusbaliatu psikikoei edo ohitura kentzeko edo erreabilitazioko tratamendua egiten ari direnei ematea edo droga ikastetxeetan, militarren egoitzetan, gartzeletan edo laguntzazentroetan sartzea edo zabaltzea. Honako kasuetan ere zigorra gogoragoa izango da: ekintza jendearentzat zabalik dagoen tokian egiten denean eta egilea tokiko erantzulea edo enplegatua denean, erruduna agintaria, medikua, funtzionari publikoa, gizartelangilea, irakaslea edo hezitzailea edo drogak zabaltzen dituen erakunde edo elkarteko kide denean dedikazio hori behinbehinekoa izan arren edo erakunde horietako nagusiak, administratzaileak edo arduradunak direnean (astungarriak bi izango dira) edo antolatutako beste edonolako jarduera deliktiboetan partehartzailea denena. Kantitatea handia denean edo sustantzia izundu, nahastu edo manipalutu egin bada osasunari egin diezaiokeen kalte handiagoatuz, orduan ere, zigorra gogortu egin daiteke (369 eta 370. artikulua).

Kode Penal berrian droga trafikoari buruzko delituekin batera aurrendariei buruzko jokaerak ere zigortzen dira (371. artikulua) eta baita prestakuntzaekintzak ere (proposamenak, konspirazioa eta probokazioa) (373. artikulua). Era berean, zehatzmehatz zehaztu dira isunen eta ordainketen zenbatekoa zehazteko irizpideak eta gai hauei buruzko arauak: drogen, produktuen, ekipoen, ibilgailuen... eta delituak egiteko edo deluetatik edo delitu horien irabazietatik lortutako edozein ondasun eta gauza konfiskatzeari buruzkoak (374. artikulua)¹¹⁶, nazioarteko mailan berrerortzeari buruzkoak eta damutasunari buruzkoak (376. artikulua).

Egia esan, arlo horretan gauzak ez dira asko aldatu 1988an eta 1992an Kodean berrikuntzak egin zirenetik eta egungo zigorrak eta indargabetuta dagoen Kodeko 344. artikuluan eta ondorengoetan zehaztutakoak oso antzekoak dira. Zuritzea da gehien aldatu dena; Kode berrian zuritzea ez da legezkontrako drogen trafikoarekin bakarrik lotzen, eta ondarearen kontrako delituen artean sartu dute¹¹⁷.

IV. kapitulua segurtasun kolektiboaren aurkako delitue dagokie eta bertan agertzen dira *trafikoaren segurtasunaren kontrako delituak*:

– *droga toxiko, estupefaziante, psikotropikoen edo edari alkoholikoen eraginpean gidatzea* (381. artikulua),

– *gidatze ausartegia estimurik egin gabe inoren bizitzari* (384. artikulua),

– *trafikoaren segurtasuna oztopatzea*, hala nola, trabak jarri, sustantzia labainkorrak edo sukoiak isuritzea, seinaleak apurtzea edo horiei dena delako kaltea egitea (382,1. artikulua),

– *bideko segurtasuna ez berrezartzea* hala egin behar denean (382,2. artikulua).

116. Konfiskatu diren baimendutako komertzioko ondasun, efektu edo tresnak erabil egin ditza-kete behinbehinekoz drogen legezkontrako trafikoa jazartzeko ardura duten polizia judizialek (374, 2. atala, bigarren parentesia).

117. SOTO NIETO, "El delito de blanqueo de dinero. Esquemas de las disposiciones afectantes al blanqueo", *La Ley*, 4015. zk., 1996.

Gai horretan egin diren aldaketa nagusiak bi izan dira: batetik, oraingo Kodearen arabera ziklomotorrak motordun ibilgailuen alboan joatea delitua izan daiteke, eta, bestetik, alkoholemia testa edo estupefazienteak edo psicotropikoak direlaeta duzun toxizitate maila jakiteko frogaren bat egitea eskatzerakoan ezezkoa emateari buruz 380. artikuluan egiten diren zehaztapenak. Izan ere, artikulua horretan zehaztutakoaren arabera, ekintza hori desobediencia larriko delitutzat jotzen badute (556. artikulua) zigorra goi mailako askatasun kentzea izan daiteke eta zigorraren iraupena ikertzen ari diren deliturako aurreikusita dagoena, hau da, alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzeari dagokiona. Puntu hori eztabaida gaia da askorentzat eta batzuen ustez Konstituzioaren aurka doa.

f) Gizartearen kontrako jokaerekin bukatzeko *faltsutasundelitua* (XVIII. titulua).

Faltsutasundelituak hauexek dira:

– *dirua faltsifikatzea*, diru hori zabaltzea barne (nahiz eta on ustearekin egin; gutxienez ere 50.000PTA) (386389. artikulua),

– *agiriak faltsutzea*, publikoak, ofizialak zein merkataritza arlokoak, edo telekomunikazioen bidez igorritako mezuak, agiri pribatuak faltsutzea, egiaztagiriak faltsutzea, (390399. artikulua)¹¹⁸,

– *egoera zibila usurpatzea* (401. artikulua),

– *eginkizun publikoak usurpatzea*; agintari bati edo funtzionari publikoari berez dagozkion eginkizunak legezkontra beste batek betetzea, berak egindako-aofiziala dela sinistaraziz (402. artikulua),

– *intrusismoa* (403. artikulua)¹¹⁹.

Kode berria egiterakoan ahalegin handia egin da arlo horretan lehen zeuden kasu guztiak nolabait gutxitzeko eta arauak gaur egungo garaira egokitzeko. Horren adibide dugu dirua esaterakoan kontuan hartu diren bakarrak ez direla Espainian edo atzerrian indarrean dauden txanponak edo paperezko bileteak, kreditu eta zortxartelak eta bidaiatxekeak ere kontuan hartu dira (387. artikulua). Era berean, eta agirien faltsifikazioari dagokionez, 26. artikuluan zehaztutakoaren arabera agiria honako hau da: frogatu egin daitekeen edo garrantzia juridikoa duen dena delako datu, ekintza edo narrazioa adierazten edo duen edozein material. Gauzak horrela, zinta magnetofonikoak, bideoak, ordenagailuko zerrendak eta abar ere agiriak dira.

118. Agirien faltsifikazioari buruz, R. ESCOBAR JIMENEZ, “Las falsedades documentales”, *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 4, aip., 425. or. eta ondorengoak; P. FERNANDEZ PANTOJA, *El delito de falsedad en documento público, oficial y mercantil*, Madril, 1996; VILLACAMPA ESTIARTE, “Sobre la tipificación de las falsedades documentales en el Código Penal de 1995”, *Actualidad Penal*, 1996-1-22/28.

119. Intrusismoari buruz, J. A. CHOCLAN MOLTALVO, “Intrusismo con ánimo de lucro y estafa”, *Actualidad Penal*, 1996-4-22/24.

C) Estatuaren kontrako delituak

a) Kode zaharra indarrean zegoen azken urteetan hainbat aldaketa egin ziren funtzionarioen eta Justizi Administrazioaren kontrako delituen arloan eta horrela erraztu egin zieten bidea Kode Penal berria egiterakoan administrazioko korrupzioa aurreikusi eta konpondu nahian zebiltzatenei¹²⁰. Horrela, bada, Kode berrian zehaztu diren administrazio publikoaren kontra egin daitezkeen delitu gehienak (XIX. titulua) eta Justizi Administrazioaren kontrako gehienak (XX. titulua) Kode zaharrekoak dira.

Administrazio publikoaren kontrako delituak ondorengo hauek dira (404. artikulua eta ondorengoak)¹²¹:

- prebarikazioa;
- lanpostua bertan behera uztea eta delituei aurre egiteko betebeharra ez betetzea;
- desobedientzia, laguntza ez ematea;
- agirizaintzako desleialtasuna eta sekretuak ezagutzera ematea;
- funtzionarioeroskeria pasiboa¹²² eta aktiboa¹²³,
- influentziatrafikoa;
- bidegabeko erabiltzeak;
- iruzurrak eta legezkontrako ordainarazpenak;
- funtzionario publikoek eginkizunak betetzerakoan abusuak egitea eta debekatuta dituzten negoziazioak eta jarduerak egitea.

Honakoak *Justizia Administrazioaren aurkako delituak* dira (446. artikulua eta ondorengoak):

- prebarikazioa (mingarria eta arduragabekoa), epaileena eta magistratuena; mota horretako delituen artean daude epeiketa egiteari ezezkoa ematea eta Justiziako Administrazioak gauzak maltzurkeriaz atzeratzea;

120. P. CRESPO BARQUERO, "Corrupción y tráfico de influencias", *El nuevo Código Penal y su aplicación a empresas y profesionales*, 4, aip., 481. or. eta ondorengoak; M. DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDO y I. OLAIZOLA NOGALES, "La evolución legislativa del delito de tráfico de influencias", *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 223, 1995.

121. I. VELEJE ALVAREZ, *El tratamiento penal de la corrupción del funcionario. El delito de cohecho (adaptado al nuevo Código Penal)*, Madril, 1996; R. HERNÁNDEZ HERNÁNDEZ, "Malversación", *La Ley*, 4004. zk., 1996; H. ROLDAN BARBERO, "EL delito de desobediencia funcional", *La Ley*, 3982. zk., 1996.

122. Delitua edo delitua ez den bidegabeko ekintza egitearen truke onurak lortzea edo eskatzea edo lortzeko promesa eskatzea. Baita karguan berezko den ekintza denean edo eginbeharrekoa den ekintza bat ez egitearen truke ere.

123. Partikularrek egindako ekintzak, helburua agintariak edo funtzionario publikoak galbideratzea denean. Orain ez da mota horretako ekintza karguari dagokion legezko jarduera egiteagatik opariak eskeintzea.

– pertsonen bizitzaren, osotasunaren edo osasunaren, askatasunaren edo askatasun sexualaren kontrako *delituak eragozteko betebeharra ez betetzea*, norbera edo besteak arriskuan jarri barik berehalako eskuhartzearekin saihas daitezkeenean, eta delituen jazarpena bultzatzearen ezbetetzea;

– *estalketa*; Kode berrian ez da parte hartzeko era bat; egun, aparteko arauhaustea da;

– *norberen eskubidearen hautazko betetzea* (oraingo Kodean ez da beharrezkoa zordunaren zerbaitetaz jabetzea);

– *delituen salaketa eta denuntzia faltsua eta delituak simulatzea*;

– *testigantza faltsua ematea*;

– *justiziari oztopoak jartzea eta desleialtasun profesionala*;

– *kondenak haustea*.

b) *Konstituzioaren kontrako delituak* (472. artikulua eta ondorengoak)¹²⁴:

– *matxinada*,

– *Koroaren kontrako delituak*,

– *Estatuaren erakundearen eta botere banaketaren kontrako delituak*;

– *oinarrizko eskubideak erabiltzeari eta askatasun publikoei buruzko delituak diskriminazioa, legezkontrako batzarrak eta manifestazioak egitea, legezkontrako elkarteak eta ordezkoko zerbitzu soziala betetzeari buruzkoak*;

– *funtzionarioek Konstituzioko bermeen kontra egiten dituzten delituak*: askatasun zibikoak askatasunez erabiltzearen kontrako delituak¹²⁵, abokatua izateko eskubideari eragozpenak jartzea, adierazpenak, batzarrak eta elkarteak egiteko askatasunaren kontrako delituak, jabetza legezkontra kentzea, norbanakoaren askatasunaren kontrako delituak, bizilekuaren bortxaezintasunaren eta intimitatearen beste berme batzuen kontrako delituak;

– *Espainia iraintzea*.

Konstituzioarekin egin zen aldaketa politikoarekin bat etorritik delitu horie buruzko eztabaida politiko sakona egin zen eta zenbait puntu aldatu egin ziren.

Matxinadadelituaren kasuan, adibidez, lehen Estatuko Jefearen kontrakoa zen baina orain, ordea, erregearen eta erregeordearen kontrakoa da eta, gainera, matxinadadelitua izateko beharrezkoa da altxamendua publikoa izateaz gain bortitza ere izatea (471. artikulua).

Oraingo Kodean zabalagoa da eta hobetu egin da Koroaren babes (485. artikulua eta ondorengoak), Estatuko erakundeena eta autonomi erkidegoena (eta

124. F. FERNANDEZ RODERA, “Los delitos de rebelión y sedición”, *La Ley*, 4014. zk., 1996.

125. H. ROLDAN BARBERO, “El delito de impedir el ejercicio de los derechos cívicos”, *La Ley*, 4002. zk., 1996.

horren kideena) (492. artikulua eta ondorengoak); zehatz aurreikusi dira zigorrak parlamentuaren aurrean aurkezko betebeharra eta parlamentuko ikerketabaztordeei egia esateko betebeharra hausten dutenentzat eta Herriaren Defendatzailearen, Kontu Auzitegiaren edo autonomi erkidegoen pareko erakundeen ikerketeei oztupoak jartzen dizkietenentzat (502. artikulua).

Eskubide Konstituzionalen kontrako delituetan puntu berri bat sartu da, *diskriminazio zigorgarria*¹²⁶, hain zuzen ere:

– talde edo elkarten kontrako diskriminazioa, gorrotoa edo bortizkeria probokatzea arrazoa arraza, antisemitismoa, pentsakera, erlijioa, sinismena, sendiaren egoera, senideko kideak etnia edo arraza batekoak izatea, sorburua, sexua, sexuorientazioa, gaixotasuna edo minusbalia denean (510,1. artikulua);

– arrazoi berberengatik (pentsakera, erlijioa edo sinismenak...) talde edo elkarte bati buruzko informazio iraingarria zabaltzea, egiarenganako mespresu ausartegiarekin eta gezurra dela jakinda;

– arduradunak norbaiti edo taldeari eskubidez dagokion herrizerbitzuko prestazioa ez ematea, ez emateko duen arrazoa pentsakera, erlijioa edo sinismena, etnia edo arraza batekoa izatea, sorburua, sexua, sexuorientazioa, sendiaren egoera, gaixotasuna edo minusbalia denean (511512. artikulua)¹²⁷.

Murritzitu egin da *legezkontrako batzarrak edo manifestazioak* direlaeta zigortua izan daitekeen jendeesparrua (513. artikulua eta ondorengoak). Batzar edo manifestazio horietara doazenak ezin daitezke zigortu ez badaramate armarik edo objektu arriskutsurik edo ez badute bortizkeriarik erabili; eta oraingo Kodean ez dago aurreikusita erantzukizun penalik debekatu edo sakabanatu den batzarra edo manifestazioa egiten edo berriz egiten saiatu direnentzat¹²⁸.

Aldiz, *legezkontrako elkarten zerrenda* luzeagoa da; legezkontrako elkar-temota berri bi sartu dira: helburu batzuk lortzeko asmoarekin nortasuna aldatzeko edo kontrolatzeko baliabideak erabiltzen dituzten elkarteak, baliabide horiek legezkoak izan arren (515-3. artikulua), eta pertsona, talde edo elkarten kontrako gorrotoa edo bortizkeria sustatzen edo bultzatzen dutenak, horretarako arrazoa ideologia, erlijioa edo sinismena, kideetariko bat edo batzuk etnia, arraza edo herrialderen batekoa izatea, sexua, sexuorientazioa, sendiaren egoera, gaixotasuna edo minusbalia denean (515-5. artikulua). Banda armatuak eta elkarte edo talde terroristak ere legezkontrako elkarteak dira (515-2. artikulua).

Aurreko Kode Penalean bezala, funtzionarioek ere egin ditzakete *Konstituzioaren bermeen aurkako delituak*:

126. C. CONDE-PUMPIDO TOURON, "La tutela de la igualdad: discriminación de la discriminación en el nuevo Código Penal", *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 241, 1996.

127. Horretaz gain, eta lehenago ere aipatu dugu, Kode berrian astungarri orokor bat agertzen da; hain zuzen ere, delitua egiteko arrazoa antisemitismoa, biktimaren arraza, pentsakera, erlijioa, sinismena, etnia, arraza edo herrialde batekoa izatea, sexuorientazioa, gaixotasuna edo minusbalia denean (22,4. atala).

128. Ikus indargabetutako Kode Penaleko 169. atala.

- norbanakoaren askatasuna (529. artikulua eta ondorengoak);
- bizilekuaren bortxaezintasunaren eta intimitateeskubidea paperetan edo agirietan, postan, telegrametan, komunikazioetan eta telekomunikazioetan (534. artikulua eta ondorengoak);
- norbanakoaren beste eskubide batzuk (537. artikulua eta ondorengoak): atxilotuak abokatua izateko eta atxilotzearen arrazoiak eta dituen eskubideak jakiteko eskubidea, berri emateko, elkartzeko eta batzarrak egiteko eskubidea, jabetzaeskubidea eta gainontzeko eskubide zibikoak.

Espainia iraintzeari dagokionez (543. artikulua), egungo Kodean ez da aipatzen Espainia herrialdearen batasunari edo bertako politikari egindako iraina eta, ordea, autonomi erkidegoei egindako irainak aipatu dira.

c) *Ordena publikoaren kontrako arauhauste penalak* (XXII. titulua):

- *albaramenduak*,
- *agintarien kontrako atentatuak*,
- *erresistentzia eta desobedientzia*,
- *desordena publikoak*,
- *armak, munizioa eta lehergailuak izatea, biltzea edo horiekin trafikatzeta*,
- *terrorismodelituak*.

Aurreko arauekin konparatuz oso nabarmena da arlo horretan egon den aldaketa; oraingo araudian ez da agertzen desmenegitea¹²⁹ eta terrorismodelituei buruzko aruen ikuspuntua guztiz aldatu da (V. kapitulua, 2. sekzioa: 571-580. artikulua). Arauhauste horiek oso zehaztu dira eta kendu egin dira lehen agertzen ziren ohar orokorrak (astungarriak eta onartu ez diren kasuetarako).

Gaur egun indarrean dagoen testuan ere terrorismodelitutzat hartu dira talde terroristen jarduerak¹³⁰ edo talde horien jardueretan eta helburuetan partaide izatea¹³¹. Baina horiez gain bakar batek egindako terrorismoa ere zehaztu da helburutzat Konstituzioko ordena iraultzea edo pake publikoa era larrian hondatzea

129. E. GIMBERNAT ORDEIG kritikatu egin du, ordea, beste antzeko delitu batzuk oraindik ere Kodean agertzea, beseak beste, erregeari irain egitea (erregearen arbaso eta ondorengoei, erregina ezkonkideari eta erreginaren ezkonkideari) (490. atala eta ondorengoak), estatuko erakundeei edo ejertzitoei (504. atala eta ondorengoak); Espainiari eta Espainiaren ikur eta enblemei egindako mesprezuak oraindik ere Kodean daude (534. atala). "Protocólo". *aip.*, XXI. or. eta ondorengoak.

130. Hondamenak, suteak, gizahilketak, lesioak, legezkontrako atxilotzeak, mehatxuak, koakzioak, armak eta lehergailuak bilduta izatea..., ondarearen kontrako delituak, beste edozein delitu.

131. Kode Penalaren arabera partaide izatea honakoa da (576. atala): pertsonak, ondasunak edo instalazioak jagotzea edo horiei buruzko informazioa ematea; biltegiak edo egonlekuak egitea, egokitzea, ematea edo erabiltzea; banda armatuetako, elkarte edo talde terroristekin zerikusia duten kideak ezkutatzea edo leku batetik bestera eramatea; prestaketa egiteko ekintzetan parte hartzea edo horietara joatea eta, orokorrean, aipatutako banda armatu, elkarte edo talde terroristen ekintzetan laguntzile izatea, laguntza ematea (bai ekonomikoa, bai beste edonolakoa).

duen ekintza (577. artikulua). Aurreikusita dauden zigorrak hogeitaz bakoiz bakoiz gehiagorako askatasuna kentzea dira eta hogeitaz hamar urtera ere hel daitezke zigorrak (gainditu egiten dute era orokorrean zehaztu diren zigorren muga)¹³². Horretaz gain, 78. artikuluan zehaztutakoari jarraituz, terrorismoko kasuetarako (eta drogatrafikorako) epaileek edo epaimahaikoek ahalmena dute gartzelaonurak edo baldintzapeko askatasuna erabakitzerakoan epaian ezarri diren zigor guztiak hartzea kontuan¹³³

Ordena publikoaren arloan oraingo testuan “debekatutako armak” aipatzen dira “suarmak” aipatu ordez eta, horrela, *armak baimenik gabe izateari buruzko delituaren* esparrua are zabalagoa da, delituak berak aldaketa askorik izan ez duen arren (563. artikulua eta ondorengoak).

Oraingo Kodearen arabera *Agintariei erresistentzia jartzea* atentatuaren maila berean zigortu ahal izateko, larria izateaz gain, aktiboa ere izan behar da (550. artikulua). Erresistentzia pasiboa bada edo aktiboa izan arren ez bada larria 556. artikulua ezarriko da. Artikulu hori dagokien desobedientzia larriko kasuei ere.

Desordena publikoen disziplina aldatu egin da pixka bat (557. artikulua eta ondorengoak):

- taldean jardutea pake publikoaren kontra eginaz eta ekintza horien bidez ordena publikoa hondatzea, lesioak sortzea, ondasunetan kalteak sortzea, bideetan edo sarbideetan oztopoak jartzea arriskua sortuz bertatik dabiltzanentzat edo instalazioak edo eraikinak inbaditzea;

- ordena larri hondatzea epai edo epaitegietako entzunaldietan, agintarien edo batzordeen jendaurreko jardueretan, hautesleketan, bulego edo beste edonolako toki publikotan, ikastetxeetan, edo ekintza kultural edo kirolekintzetan;

- ordena publikoa era larrian hondatzea norbaiti bere eskubide zibikoak betetzen ez uzteko helburuarekin;

- oztopoak jarriz, eten eginaz edo suntsituz honakoetan kalteak sortzea: postan, telekomunikazioetarako lineetan edo instalazioetan, trenbideetan (trenen zirkulazioari kalte larria sortuz), ura, gasa edo elektrizitatea harriguneetara dararmaten kondukzioetan edo transmizioetan;

- lehegailuak edo antzekoak daudela esatea, pake publikoa hondatu nahian eta gezurra dela jakinda.

132. Hala ere, drogen kasuan gertatzen den bezela (376. atala), kasu honetan ere posible da zigorra murriztea, hori orokorrean posible ez den arren. Horretarako delitugileak bere kabuz utzi behar du ekintza eta agintariengana joan behar du ekintzak aitortzeko eta gogoz lagundu behar du delitua ekiditzeko, frogak lortzeko bai errudunak identifikatu ahal izateko, bai taldeen eta elkarten garapena eta ekintzak saihesteko (579. atala).

133. Horrek ez dio kalterik egingo tratamendu arrazoiak direla eta ondoren Epaile Begiraleak zigorra betetzeko erregimen orokorra ezartzeko har dezakeen erabakiari. Erabaki hori hartu aurretik fiskalak esan beharrekoa entzun beharko du epaileak eta presoaren egoera, berheziketako tramendua nola doan eta gizarteratze pronostikoa zein den izan beharko ditu kontuan

d) *Traizio egitearen delitua*¹³⁴ *eta Estatuaren pake eta independentziaren kontrako*¹³⁵ *delituek eta nazioko defentzari buruzko delituek*¹³⁶ ez dute ia aldaketarik izan. Aipamen berezia merezi duen bakarrak zerbitzu militarren *intsumizioa* (604. artikulua) eta ordezeko zerbitzu soziala (527. artikulua eta ondorengoak)¹³⁷ dira. Azken hori oinarrizko eskubideak erabiltzeari eta askatasun publikoei buruzko delituen artean jarri dute, Konstituzioaren kontrako delituen artean.

Arlo horretan zigortutakoak honakoak dira: soldaduzkara hilabete bat baino beranduago joatea edo ez joatea egiaztatutako arrazoirik gabe, behin joanez gero eta arrazoi legalik gabe soldaduzka bete nahi ez izatea (604. artikulua). XXI. tituluko IV. kapituluko 3. sekzioan ordezeko zerbitzu soziala betetzeari buruzko insumizioa zehaztu da eta hauek dira zigorgarriak diren ekintzak: betebeharrak horretara hilabete baino beranduago joatea, hogeit egun jarraian joan gabe egotea edo hogeita hamar egun ez jarraietan, behin zerbitzua betetzen hasiz gero bete nahi ez izatea (527. artikulua) eta kontzientziatzko eragozpen faltsuak alegatzea (528. artikulua).

Kode berrian intsumizioaren arazoari konponbidea emateko aukeratu den bidea guztiz onartezina da. Ez dirudi berezkoa denik 2000. urtean sartzearen eta modernotasunaren baloreak onartu dituen gizarteak delitugileztat hartzea intsumizioak; hau da, lege horren bidez zigortu egiten diren gazteak bakezaleak dira, ez diete inolako kalterik egiten babes penalik merezi duten ondasun juridikoei eta egiten duten delitu bakarria legea bate nahi ez izatea da, gehienetan kontzientziatzko arrazoiak direlaeta ejertzitzaoren aurkakoak direlako eta ez dutelako bete nahi kasu horietarako ezarri den beste edonolako zerbitzurik. Are gehiago, kontzientziatzko arrazoiatarako ezarri diren arauak indartu egiten dute derrigorrezko zerbitzu militarra. Askatasuna kentzen duen zigorra zehaztu beharrean gaitasungabetze osoa aurreikusteak, 8 eta 12 urtera bitartekoa (527. artikulua), ez da nahikoa arlo horretan zehaztutakoari buruzko iritzia hobetzeko. Izan ere, zigorra larria da (33,2 b artikulua) eta ezohikoa kontuan hartzen badugu zer nolako gaitasungabetzeak zehaztu diren: ohiko gaitasungabetze osoaren kasuan zigortuaren ohorea, lana eta kargu publikoa dira zigorraren oinarria (40. artikulua), baina ari garen kasuan administrazioko, erakunde eta enpresa publikoetako edo erakunde autonomoetako enpleguak eta karguak ezezik, dirulaguntzak, bekak edo laguntza publikoak lortzeko aukera ere kentzen dute.

134. Gerrara bultzatzea, aurkakoaren alde egitea, espiotza, Konstituzioaren kontra eginaz gerla deklaratzeko edo bakea sinatzea (581. atala eta ondorengoak).

135. Legezkontrako borroka, neutraltasunaren kontrako ekintzak, tregoa edo armistizioa apurtze, legezkontrako erreklutatzea, etsai den herrialdearekin posta bitarteko harremanak izatea, herrialdetik irtetzea etsaiarekin bat egiteko; atzerriko herrialdeetako gobernuen xedapenak betetzea edo argitaratzea, atzerriko gobernuen, taldeekin edo elkarteekin egindako inteligentzia, ezkortasuna (589. atala eta ondorengoak).

136. Nazioko segurtasunari buruzko sekretuak eta informazioa lortzea eta jakitera ematea, zerbitzu militarra egiteko betebeharraren kontrako delituek.

137. M. ALENDA SALINAS, *El régimen de la prestación social de los objetores de conciencia*, Valentzia, 1996; J. A. SAINZ RUIZ, *Objeción de conciencia e insumisión al servicio militar, regulación legal y jurisprudencia*, 1996.

D) Nazioarteko elkartearen kontrako delituak

Nazioarteko elkartearen kontrako delituak (605616. artikulua) II. liburuko azkenengo tituluaren bildura (XXIV. tituluaren) eta bertan aurreko Kodearen Estatuaren kanposegurtasunaren kontrako kasuak zirenak zehaztu dira, gaur egun beste esanahi bat eman zaien arren.

Nazioarteko elkartearen kontrako delituak dira:

– *jendeak dituen eskubideen kontrako delituak*: atzerriko Estatuaren jefeen edo nazioartean babesa duten pertsonen bizitza, osasun eta osotasun fisikoaren kontra eraso egitea, atzerriko Estatuaren jefeen edo nazioartean babesa duten pertsonen immunitatea bortxatzea (605 eta 606. artikulua);

– *genozidodelitua*¹³⁸, gizahilketaren apologia barne (607. artikulua);

– *gatazka armatuetan pertsonen eta babestuta dauden ondasunen kontra egindako delituak*; arlo horretako delitu gehienak Hayako Hitzarmenean (1899) eta Genevakoan (1949) eta horien protokolo gehigarrietan aurreikusi ziren gerlako kriminalak dira (608614. artikulua): tortura, tratu txarrak, tratu jasanezinak (esperimentu biologikoak barne), borrokan debekatuta dauden metodo edo baliabideak erabiltzea, eraso indiskriminatuak, militarrik ez diren itsasontzi edo aerontziak suntsitzea, errepresaliako erasoak edo ekintzak, herrien ondare kulturala edo espirituala edo herritarrik bizirik iruteko beharrezko diren ondasun zibilak edo ezinbestekoak direnak suntsitzea edo lapurtzea, gerrapresoen, zibilen, osasun zerbitzuetako langileen, erlijiosoen edo laguntzaelkarteetako, osasuneko unitate edo garraioen, neutralizatutako guneen, presoeremuen, babesik gabeko herrien edo militarrik gabeko eremuan kontra egindako delituak eta Espainiak onartu dituen nazioarteko beste hitzarmen batzuk bortxatzea borroka bideratzeari, zaurituen, gaituen eta itsasoaren galdutako babesari, gerrapresoaren tratuari eta gatazka armatuetan ondasun kulturalen babesari buruzkoak.

2. Hutsegiteak

II. liburuan, eta Kode berriko terminologiaren arabera, arauhauste larriak eta ez hain larriak jaso dira eta hutsegiteak (arauhauste penal arinak) III. liburuan¹³⁹. Izan ere, liburu hori oso gutxi landuta dago eta geroa eta laburragoa da.

Hutsegiteak, 13,3. artikuluarik jarraituz, legeak zigor arinekin zigortzen dituen arauhausteak dira; zigor arinak, era beran, 33,3. artikuluan daude zehaztuta.

Hutsegiteak lehen esan bezala arauhauste arinak direnez irizpide bereziak daude eskuhartze penalerako:

Hutsegiteak zigortu ahal izateko egitezkoak izan behar dira, hutsegitea pertsonen edo ondarearen kontra egiten saiatu direnean ezik (15,2. artikulua).

138. Delitu hori preskribaezina da (131,4. atala)

139. Guztionatik, M. AYO FERNANDEZ, *Las Faltas en el Código penal y el Juicio Verbal de Faltas. Especial consideración al Nuevo Código Penal*, 3. arg., Iruñea, 1996.

Bestalde, hutsegiteari dagokion zigorra ezartzerakoan epaileak askoz ere askatasun handiagoa du: ez dio zertan jarraitu behar 6172. artikuluetan zehaztutakoari (egitemaila, egiletasuna eta parte hartzea, aringarriak eta astungarriak, guztizko salbuesleak) eta kasuaren eta egilearen inguruabarrak kontuan har ditza-ke (638. artikulua). Edonola ere, konkurtso arauak erabili daitezke (7379. artikulua).

Zenbait hutsegiteren kasuan legeak eskuhartzeko beharrezkoa da bidegabekeria jasan duenak edo horren ordezkari legalak salaketa egitea¹⁴⁰: 620. artikulukoak, mehatxu eta hertsapen arinak, pertsonen kontrako erruzko hutsegiteak(621. artikulua) eta balio handirik ez duten edo gehienez ere 50.000 PTAko balio duten jabetzen mugak aldatzea (legeak eskuhartzeko derrigorrezkoa da kaltetuak salaketa jartzea) (624. artikulua). Kasu horietan, 639. artikuluan zehaztutakoari jarraituz, salaketarik ez jartzeak ez du esan nahi aurreikusteko izapide-rik egingo ez denik.

Kode Penalean bildu diren hutsegiteak (III. liburuan jarraian dauden tituluetan) honela sailkatu dira:

- pertsonen kontrako hutsegiteak
- ondarearen kontrako hutsegiteak
- interes orokorren kontrako hutsegiteak
- ordena publikoaren kontrako hutsegiteak

A) Pertsonen kontrako hutsegiteak

Pertsonen kontrako hutsegiteak dira delituak ez diren *lesio mingarriak* (617,1. artikulua), hau da, medikuak ikusi behar izan arren ez dutenak medikua-ren edo kirurgiako tratamendurik behar (ez da tratamendutzat hartuko medi-kuak lesioaren jarraipena egitea edo kontrolatzea).

Ondorengo hauek ere pertsonen kontrako hutsegiteak dira:

- *tratu txarren* hutsegiteak; beste norbati tratu txarrak ematea edo jotea lesio-rik sortu gabe (617,2. artikulua),

- *adin txikikoen, ezinduen edo pertsona nagusien edo babesik gabeko ezgaituen kontra egindako zenbait ekintza*: adin txikikoa edo ezindua abondo-natuta dagoenean agintariengana, senitartekoengana ez eramatea edo lagun-tzarik ez ematea (618. artikulua), babesik gabe eta errudunaren zainketen pentsura dauden nagusiei edo ezgaituei laguntzarik ez ematea (619. artikulua), agintari judi-zialak edo tutoretza duen erakunde publikoak hartutako erabakiak ez betetzea, ezbe-tetzen hori delitua edo desobedientziazko hutsegiteak ez denean (622. artikulua),

- *arma edo tresna arriskutsuekin mehatxu arinak egitea edo errietetan ate-ratzea baina ez bidezko defentsa egiteko eta bidegabeko eta izaera arindun mehatxu, hertsapen, irain edo laido*; legeak eskuhartzeko kaltetuak salaketa egin behar du (620. artikulua).

140. Edo ministerio fiskalak kaltetua adin txikikoa, ezindua edo babesgabekoa bada. (639. atala).

– *gizahilketa eta/edo arduragabekeria arinagatik lesioak edo arduragabekeria larriagatik lesio ez hain larriak* (147,2. artikulukoak) *sortzen dituzten jokaerak*; kasu horietan ere beharrezkoa da salaketa jartzea¹⁴¹ eta eskubideak kentzen dituen zigorra ezartzeko beharrezkoa da hutsegiteok motordun ibilgailuarekin, ziklomotorrarekin edo arma batekin egitea.

B) Ondarearen kontrako hutsegiteak

Gauzak *ebastea* edo *lapurtzea* (indarkeria edo larderia erabiltzen den kasuetan ezik) eta *norberena ez den motordun ibilgailua edo ziklomotorra ebastea*, gauzaren balioa edo erabili den ibilgailuaren balioa 50.000 PTA baino gutxiago denean (623-1. eta 3. artikulua).

Norbaitek gauza higigarri baten bidezko jabetzan duenean jabeak berak edo jabearen baimenarekin lapurtzea, bidezko jabetza dueneri edo beste hirugarren bati (furtum possessionis) kalteak sortuz. Gauzaren balioa gehienez ere 50.000 PTA izan behar da.

Elektrizitatean, gasean, uran edo beste elementu, energia edo jariakorrean edo telekomunikazioetako bukaeraterminaletan iruzur egitea edo bidegaeko jabetza hartzea, kantitatea 50.000 PTA baino gutxiago denean. (623,4. artikulua)

Mugak edo edozein mugarri edo seinale aldatzea, balio handirik ez dutenean edo balioa gehinez ere 50.000 PTAkoa denean (624. artikulua).

*Nahita sortu diren kalteak*¹⁴², kaltea 50.000PTA baino gutxiago denean. Kasu horiek larriagoak izango dira ondasun historiko, artistiko, kultural edo monumentalari egin zaionean kaltea (625. artikulua).

Jabetza publikoa edo pribatua duten ondasunak nolabait itxuragabetea administrazioaren edo jabearen baimenik gabe (626. artikulua).

Europako Batasuneko Ogasunari 4.000 ecu baino gehiagoko iruzurra egitea, zergak eta atxikipenak ez ordainduz, dagokien dirusatzea ez eginaz, behar ez bezalakoak diren itzultzeak lortuz edo bidegabeko onura fiskalak lortzea (627. artikulua).

Europako Batasuneko aurrekontu orokorreari edo horrek administratzen dituen beste aurrekontu batzuei iruzur egitea edo aurrekontu horietatik behar ez bezalako fondoak lortzea, kantitatea 4.000 ecu baino gehiago denean

141. Gauza bitxia, arduragakeria larriarengatik egindako gizahilketan ere delitu jazarri ahal izateko beharrezkoa da salaketa egitea, baina salaketa ez du kaltetuak egin behar, bidegabekeria jasan duenak baino (hau da, hildakoak). Kontuan hartzen badugu ordezkari-tza guztiak bukatu egiten direla heriotzarekin, hildakoak ez du legezko ordezkorik. Gauzak horrela delitu jazartzeko era bakarra 639. atala ezartzea da; horren bidez bidegabekeria jasan duena adin txikikoa, ezindua edo babesgabea denean jazarpena ministeri fiskalak egin dezakela zehaztu da.

142. Kode Penal berriaren arabera ez dira zigorgarriak arduragabekeria arinagatik sortutako kalteak, ez eta arduragabekeria larri denean baina kalteak hamar milioitik beherakoak direnean ere (267. atala).

eta erabilitako bidea honakoa denean: dirusarrerak ez egitea, lortutako fondoak horiei dagokien helbururako erabili beharrean beste zerbaitarako erabiltzea, fondoak lortzeko beharrezko diren baldintzak betetzeko gezurra esan edo fondoak lortzea galerazten duen baldintzaren bat ez aipatzea (628. artikulua).

C) Interes orokorren kontrako hutsegiteak

Txanpon, bilete, postazigilu edo gauza tinbratu faltsuak saltzea (baina ez edukitzea), *on ustearekin lortu direnean eta kantitatea 50.000PTA baino txikiagoa denean* (629. artikulua).

Bertan behera uztea edo adin txikikoak ibiltzen diren tokietan uztea ziringak edo pertsonentzako egoera arriskutsuan arriskutsuak izan daitezkeen edo gaixotasuna kutsatu dezaketenak tresnak (630. artikulua).

Ugazabak animalia basatiak edo kaltegarriak askatzea arriskua eraginez (arriskua eragiteko moduan) (631. artikulua).

Etxabereari edo legezkontra egindako ikuskizunetan erabiltzen den beste edozein animaliarri tratu krudela ematea (632. artikulua).

D) Ordena publikoaren kontrako hutsegiteak

Desordena publikoak, 558. artikuluan aipatu ez direnak eta epaietan edo epaitegietan, ekintza publikoetan, kirolikuskizunetan, kultur ikuskizunetan, ospakizunetan edo jende asko biltzen den batzerretan ordena era arinean hondatzea (633. artikulua).

Agintariak edo horien agenteak beren eginkuzunak betetzen ari direnean ez errespetatzea, zor zaien begirunea ez izatea edo desobedientzia arina (hau da: erresistentzia pasiboa edo aginduak ez betetzea erasorik egin gabe eta indarkeria edo larderia erabili gabe, erresistentzia aktiborik egin gabe).

Pertsona juridikoaren edo pribatuaren etxebizitzan, bulegoan, merkataritzaestablezimenduan edo jendearentzat zabalik dagoen lekura indarrez sartzea (barruan jabearen nahiaren kontra egonaz eta itxita egoteko ordutegia denean) (635. artikulua).

Erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguruak izan gabe jarduerak egitea (636. artikulua), *jarduera horiek agiteko derrigorrezkoa denean aseguru hori izatea: motordun ibilgailuak erabiltzeko edo horiekin ibiltzeko, ehizarako, bidai edo garraio kolektiboetarako, arrisku nuklearretarako, produktu toxiko edo arriskutsuak ekoizteko eta gestionatzeko, lehergailu piroteknikoak manipulatzeko edo erabiltzeko, odola emateko edo odolbankuetarako, meategietarako edo industriako jardueretarako, gasaren, berogailuaren, aireegokituaren, ur beroaren instalazioetarako, suitzalgailuetarako...*

Erabilera publikoa edo berez ez dagokion erabilera ematea uniformeei, trajei, intsigiei edo kondekorazio ofizialei edo jendaurrean ez daukazu ikasketatitulu bati dagokion nolakotasun profesionala duzula esatea (637. artikulua).

